

AIARAKO UDALAK 2021eko EKAINAREN 17an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

PRESIDENTEA

Gentza Alamillo Udaeta jauna

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo Vadillo jauna

Montse Angulo Solloa andrea

José Antonio Bartolomé Pesquera jauna

Itxaso Gorbeña Allende andrea

Unai Campo Arenaza jauna

Karmele Población Martínez andrea

Marian Mendiguren Mendíbil andrea

Koldo Mendioroz Goldaraz jauna

Iratxe Parro Uzquiano andrea

Arespalditzan, bi mila eta hogeita bateko ekainaren hamazazpian, hemeretziak direnean, Udalbatza Osoa **modu telematikoan** bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, eta bilera deitu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutako aurrerapenarekin. M^a Del Carmen Rojo Pitillas andrea da idazkaria.

EZ DA BERTARATU

Susana Martín Benavides andrea

IDAZKARIA

M^a Del Carmen Rojo Pitillas andrea

Alkate jaunak ongietorria ematen die denei, eta, besterik aipatu gabe, eguneko **GAI-ZERRENDAN** jasotako puntu hauek jorratzeari ekiten diote:

1.-Onestea, bidezkoa bada, 2021eko maiatzaren 20an eginiko ohiko bilkuraren akta.-


Marian Mendiguren Mendíbil zinegotzi andreak (EH-BILDU) adierazi du aktan ez dela jasotzen perretxiko liburuaren eta BTT maratoiaren dirulaguntzekin lotuta komentatu zuen zerbait, eta esan du dirulaguntza horiek ez zirela Batzordean jorratu eta dirulaguntzak ez dituela gobernu-taldeak ematen Udalak baizik, eta haiek ere horren parte direla. Gaineratu du hori islatzen bada aldeko botoa emango dutela, baina bestela ez.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du hori esan izana audio bidez frogatzen bada, jasota geratzen dela.

Parte-hartzeak bukatuta, aho batez erabaki da, adierazitako zuzenketarekin, akta hori onestea.

2.- Onestea, bidezkoa bada, Arabako Foru Aldundiari eskuordetzea Eguneko Arretarako Landa Zentroaren Zerbitzuaren eskumenak eta garraio egokituko zerbitzuaren kudeaketa-agindua.-

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio Arabako Foru Aldundiari Eguneko



Arretarako Landa Zentroaren Zerbitzuaren eskumenak eta garraio egokituko zerbitzuaren kudeaketa agindua eskuordetzeari buruzko erabaki-proposamena. Honako hau dio:

“ERABAKI-PROPOSAMENA

IKUSI DA. – Euskal Herriko Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea, zeinak arautzen duen botere publikoek eskubidearen titular diren pertsona guztiei bermatu behar dietela gizarte-prestazio eta -zerbitzuetarako prestasuna eta sarbidea, legean ezarritako baldintzetan, eta urriaren 6ko 185/2015 Dekretua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa, Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen maparen arabera, zeina 2016ko uztailaren 22an Arabako Foru Aldundiak eta Lurralde Historikoko Udalek berretsi zen, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren barruan.

HAU IKUSI DA: Euskal Herriko Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 22. artikulua, udal-eskumeneko lehen arretako gizarte zerbitzuen artean besteak beste, eguneko arretarako zerbitzuak jasotzen dituela, eta ahalmen ugari esleitzen zaizkie. Lurralde historikoko udalerrri gehienek, tamaina eta biztanleria txikia dutenez, ez dituzte zerbitzu hori emateko behar diren azpiegiturak.

HAU IKUSI DA: udalerrri honetan zerbitzuaren eraginkortasuna bermatzeko mekanismoak arbitratzeko, Arabako Foru Aldundiaren eta Udaletxe honen artean lankidetzaz esparrua prestatzea egoki jotzen dela, eta lankidetzaz hori lankidetzaz, kooperazio eta administrazio arteko laguntza printzipioen legearen barruan dago, besteak beste urriaren 1eko 40/2015 Legearen Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 140. artikulua eta hurrengoetan; eta aipatutako Gizarte Zerbitzuen Legearen 43. artikulua eta hurrengoetan.

HAU IKUSI DA: Arabako Foru Aldundian Eguneko Arretarako Landa Zentroen zerbitzuei dagozkien eskumenak eskuordetzeko hitzarmenaren eredia eta garraio egokituko zerbitzuaren kudeaketa-agindua zerbitzu horretarako, zeina Arabako Lurralde Historikoko udalerrri guztiei eskaini zitzaizen, tokiko autonomiaren jardueran egoki irizten badute, batu daitezten.

HAU IKUSI DA: EUDELEk igorritako idatzia, non adierazten zen Arabako Gizarte Zerbitzuen berrantolaketa eta kudeaketaren prozesuan Gizarte Zerbitzuen Legean ezarritako eskumenak modu eraginkorrean emateko, eguneko arretarako landa zentroei dagokien araudia erabaki dela, eta udalak, tokiko autonomia oinarri hartuta, EALZaren eskumenak eskuordetzeko aukera eta EALZaren garraio egokituko zerbitzuaren kudeaketa araua egoki irizten baditu, jarraitu beharreko prozedura honako hau izango litzatekeela:

- *Lehenengo eta behin, Zerbitzua arautzeko udal-arautegia eta Zerbitzuaren ordenantza fiskala onetsi behar ditu, 2021eko martxoaren 31 baino lehenago. Akordio horiek Foru Aldundiari helaraziko dizkio.*
- *Behin testu horiek onesten direnean, Arabako Foru Aldundiarekin eskumenak eskuordetzeko hitzarmena eta Eguneko Arretarako Landa Zentroen garraio egokituko zerbitzuaren kudeaketaren agindua sinatuko dira.*



HAU IKUSI DA: 2021eko otsailaren 18ko Udalbatzako osoko bilkurak besteak beste honako erabaki hauek hartu zituen:

- *Udal honetako Eguneko Arretarako Landa Zentroen prezio publikoaren antolamendu berria eta hura arautzen duen Ordenantza Fiskala behin-behinean onartzea, eta hogeita hamar egunez jendaurrean jarri eta gero, behin betiko onespina 2021eko maiatzaren 21eko ALHAOn 55 zenbakian argitaratu da.*
- *Hasiera batean onestea Aiarako Udaleko Eguneko Arretarako Landa Zentroen zerbitzuaren udal-araudia, eta horren hasiera bateko onespina 2021eko maiatzaren 21eko ALHAOn 55. zenbakian argitaratu da (akatsen zuzenketa). Oraindik ez da behin betiko onetsi ez delako hogeita hamar egun balioduneko epea igaro, eta hortaz, oraindik ez da ALHAOn behin betiko onespina argitaratu.
Horrenbestez, behin betiko onespina eta indarrean sartzeak baldintzatuko dute hartuko den erabakia, testu osoa ALHAOn argitaratu ondoren.*

HAU IKUSI DA: apirilaren 2ko Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 47.2.h artikuluan jasotakoarekin bat etorruta, Udalbatzako legezko kide-kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa behar dela beste administrazio publikoei funtzio edo jarduerak transferitzeko erabakiak hartzeko.


Adierazitako guztiagatik, Udalbatzari ondorengo ERABAKIA onestea proposatzen zaio:

LEHENENGOA. Arabako Foru Aldundiari eskuordetzea jarraian idatzitako Hitzarmenaren testuan jasotzen diren eskumenak, Eguneko Arretarako Landa Zentroen zerbitzuari, eta zerbitzu horretarako garraio egokituko zerbitzuaren kudeaketaren aginduari dagokiona.

BIGARRENA. Arabako Foru Aldundiaren eta Aiarako Udalaren artean sinatutako lankidetzaz hitzarmena onestea, zeinaren bidez eskumenen eskuordetza eta kudeaketa-agindua formalizatuko diren. Testuak honako hau dio:

“EGUNEKO ARRETARAKO LANDA ZENTROEN ZERBITZUAREN ESKUMENAK ETA EGUNEKO ARRETARAKO LANDA ZENTROEN GARRAIO EGOKITUKO ZERBITZUAREN KUDEAKETA-AGINDUA ESKUORDETZEKO HITZARMENA AIARAKO UDALAREN ETA ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ARTEAN.

Abenduaren 5eko Euskal Herriko Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legean, Ongizate Estatuaren zutabea, bertan jasotzen da Botere publikoek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan araututako prestazioen eta zerbitzuen eskaintza eta horietaz baliatzeko modua bermatuko dutela eta urriaren 6ko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Legean, Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Maparen arabera, Arabako Foru Aldundiak eta Lurralde Historikoko Udalek 2016ko uztailaren 22an berretsia, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren barruan.



12/2008 Legearen 22. artikulua arabera, Eguneko arretarako zerbitzua udal-eskumena da eta hainbat ahalmen ditu Lurrealde Historikoko udalerrri gehienek, neurri eta biztanleria txikiagatik, ez dituztelako beharrezko azpiegiturak zerbitzu hori modu eraginkorrean emateko.

Apirilaren 2ko Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 31. artikuluan jasotzen den moduan, aldundiek udal-eskumenen zerbitzuen prestazio osoa eta egokia bermatu behar dute lurralde osoan, eta testu bereko 36. artikulua arabera, aldundiek besteak beste, udal-zerbitzuei dagokienez laguntza eta lankidetzak juridiko, ekonomiko eta tekniko eman behar dute. Arabako Foru Aldundiaren parte-hartzea aholkatzen du udal-eskumenaren zerbitzu hori emateko.

Hortaz, Lurrealde osoan zerbitzuaren eraginkortasuna bermatzeko mekanismoak erabakitze gomendagarria da Arabako Foru Aldundiaren eta hala erabakitzen duten Udalen arteko lankidetzak esparru bat sortzea udal-eskumenen funtzio jakinen jarduketarako.

Lankidetzak horrek lege-ahokadura du administrazio arteko laguntza, lankidetzak eta asistentziaren printzipioetan, besteak beste, urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legearen 140. artikuluan eta hurrengoetan; eta Hitzarmen honetan gauzatutako Gizarte Zerbitzuen lege horretako 43. artikuluan eta hurrengoetan jasotakoetan.

Eguneko arreta zerbitzuari dagozkion udal-funtzio ezberdinek beharrezko egiten dute Hitzarmen honek, lehen aipatutako 40/2015 Legearen 47. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren babespean formalizatua, bere gain hartzea eskumenak eskuordetzeko lankidetzak formula prestazio sozialarekin lotutako administrazio prozeduren izapidetzeari eta garapenari buruzko funtzioak egiteko, baita prezio publikoaren bilketarako eta dagokion eguneko arretako landa zentrori garraio egokitu zerbitzuaren kudeaketa-agindurako ere.


Foru lankidetzaren oinarrietako bat udalerriri arabar guztietan zerbitzuaren kalitate eta intentsitatea antzekoa izatea sustatzea denez, beharrezkoa da zerbitzua eta prezio publikoak arautzen dituen araudia berbera izatea lankidetzak sinatzen duten udalentzat, horrekin konpetentziak eskuordetzea errazten da, hori dela eta zerbitzuaren eta prezio publikoaren prezioa arautzen dituen araudia Hitzarmenean erantsita daude.

Hitzarmen horretara atxikitzen diren Lurrealde Historikoko udalerrietan aplikatuko da, honako baldintza hauetan:

KLAUSULAK

Lehenengoa. Xedea

1.1. Hitzarmen honen xedea da Arabako Foru Aldundiari eskuordetzea eguneko arretarako landa zentroen zerbitzuari eta Aiara Udalaren eguneko arretarako landa zentrori joateko garraio egokitu zerbitzua behar duten pertsonen zerbitzuaren kudeaketa-aginduari dagozkion eskumenak.



1.2 Hitzarmenetik at geldituko dira Eguneko Arretarako Landa-zentroaren zerbitzuari buruzko informazioari, balorazioari, diagnostikoari eta orientazioari lotutako udal eskumen eta funtzio guztiak; izan ere, horiek oinarrizko gizarte zerbitzuei dagozkie, eta zuzenean udalak berak edo Kuadrillak emango ditu. Halaber, oinarrizko gizarte zerbitzu horietatik erreferentziazko profesional bat izendatuko da, kasuaren koordinazioa bere gain hartuko duena, Banakako Arreta Programa edo, kasuan kasu, Arreta Plan Pertsonalizatua egingo duena, pertsona edo familia erabiltzailearen partaidetzarekin, Esku-hartzearen jarraipena ere egingo du, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarekin batera, eta interesdunei orientazioa eta laguntza emango die dagozkien espedienteak izapidetzeko eskaera eta beharrezko dokumentazioa formalizatzen.

Bigarrena. Eguneko Arretarako Landa Zentroaren zerbitzua arautzeko araudia eta Hitzarmenaren eraginkortasuna.


2.1 Arabako Foru Aldundia eta Aiarako Udalak Hitzarmena sinatzeko konpromisoa hartzen dute, behin Eguneko Arretarako Landa Zentroen zerbitzuaren eta dagokion Ordenantza Fiskalaren Udal-araudi erregulatzailea onesten direnean. Horiek Hitzarmen honi atxiki zaizkio I eta II Eranskin gisa, hurrenez hurren.

2.2 Araudi horren onespena eta indarraldia ezinbesteko baldintza da Hitzarmen honen eraginkortasunerako eta indarraldirako.

Hirugarrena. Eskumenen eskuordetzearen irismena

3.1 Aiarako Udalak Arabako Foru Aldundiari eskuordetu dio Eguneko Arretarako Landa-zentroaren Zerbitzuaren arloan honako eskumen hauek gauzatzea:

- a) *Horretarako ezarrita dagoen Balorazio eta Orientazio Batzorde Teknikoaren bidez balora-tzea oinarrizko gizarte zerbitzuek bideratutako espediente guztiak. Desadostasunik balego, espedientea bideratu den Udalak/Koadrilak izendatutako pertsona gehitu daiteke.*
- b) *Proposamen teknikitik (udaleko gizarte zerbitzuek egina) abiatuta izapidetzea, erabat amaitu arte, zerbitzu hori ematearekin lotutako administrazio prozedurak. Horretarako beharrezko ebazpenak emango dira, eta, bereziki, prestazio horren eskubidea aitortu, eskuratu eten eta/edo irautzitzekoak, Eguneko Arretarako Landa-zentroko zerbitzuaren udal araudi arautzailean ezarritako terminoetan.*
- c) *Ordenantza Fiskalean ezarritako zerbitzuen prestazioagatik prezio publikoen kudeaketa, likidazioa, ikuskapena eta bilketa, bat etorritik Tokiko Ogasunen eta Arabako Zergen Foru Arau Orokorren araudian ezarritakoarekin.*
- d) *Eguneko arretarako landa zentro zerbitzuari dagokionean zehatzeko ahala erabiltzea eta legez egin behar diren ikuskapenak eta egiaztapenak egitea.*
- e) *Eskuordetutako eskumenak egikaritzean emandako egintzen aurka jarritako administrazio-errekurtsuak ebaztea.*



3.2 Arabako Foru Aldundiari dagokio eskuordetutako eskumen hori gauzatzea, indarrean dagoen araudiarekin bat etorrita, eta bereziki, bigarren klausulan aipatutako zerbitzua eta prezioa arautzen duen araudiarekin.

Laugarrena. Eguneko arretarako landa-zentroaren garraio egokituko zerbitzuaren emakidaren kudeaketa-aginduaren irismena

4.1 Aiarako Udalak Arabako Foru Aldundiari agintzen dio eguneko arretarako landa-zentroaren garraio egokituko zerbitzua ematea onestea.

4.2 Arabako Foru Aldundiak garraio egokituko zerbitzuari dagokion prestazio egokia emateko beharrezko argibideak eta izapideak eman ditzake.

4.3 Kudeaketa-agindu hori Arabako Foru Aldundiak aurrera eraman dezake modu zuzen zein zeharkakoan, kontratu edo hitzarmen bidez, lege ezarrita dagoen moduan eta gehieneko iraupena ez da hitzarmen honen indarraldia baino luzeagoa izango.

Bosgarrena. Gobernu eta Koordinazio Batzordea

5.1 Hitzarmen honetan jasotako akordioak eta horien interpretazioa jarraitu, kontrolatu eta betetzea bultzatzeko Gobernu eta Koordinazio Batzordea sortu da.

Gobernu eta Koordinazio Batzordea honako hauek osatuko dute:

Udaletako sei (6) ordezkariak, Aiara, Ipar-ekialdeko Araba eta Hegoaldeko Arabako arlo bakoitzeko bik.

Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politika saileko hiru (3) ordezkariak.

5.2 Gobernu eta Koordinazio Batzordeari dagokio antolaketa- eta funtzionamendu-araudia egitea.

5.3 Hitzarmenean eta antolaketa- eta funtzionamendu-araudian aurreikusten ez den guztian, Gobernu eta Koordinazio Batzordearen funtzionamendua urriaren leko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean jasotako kide anitzeko organoen funtzionamenduaren arauak arautuko dute.


Seigarrena. – Gobernu- eta Koordinazio-batzordearen funtzioak

6.1 Honako hauek dira gobernu eta koordinazio-batzordearen funtzioak:

- a. Hitzarmen honen planifikazioa, koordinazioa, jarraipena, kontrola, txostena eta interpretazioa.
- b. Hitzarmen honetan egiten den edozein aldaketa edo berritze jakinaraztea.
- c. Hitzarmen honetan berariaz jasotako eskudantziak baliatzea.

6.2 Gobernu eta Koordinazio-batzordeari urtero honako hau jakinaraziko zaio:

- a. Hitzarmenaren exekuzio-egoera eta ekitaldi bakoitzeko gorabeherak.



b. *Sinatu duten erakundeek izan ditzaketen proposamen, kexa edo iradokizunak.*

6.3 Urtero Arabako Gizarte Politiken Erakundeen arteko Mahaiari Arabako Lurralde Historikoko eguneko arretarako landa zentroen zerbitzuaren jardueraren memoria aurkeztuko zaio, Lurralde horretako udalekin sinatutako hitzarmenaren barruan eguneko arretarako landa zentro zerbitzua emateko.

Zazpigarrena. – Eskuordetutako eskumenen eta kudeaketa-agindua

7.1 Eskumenak eskuordetzeak ez du titulartasuna ematea esan nahi. Titulartasuna momentu oro udalarena izango da eta jarduketa soilik eskuordetuko da.

7.2 Arabako Foru Aldundiak Gobernu- eta Koordinazio-batzordeari eskuordetutako eskumenen jarduera eta agindutako zerbitzuaren garapenaren berri emango dio, gutxienez urtean behin.

7.3 Aiarako Udalak edozein momentutan eska dezake Arabako Foru Aldundiari eskuordetutako eskumenen eta araututako zerbitzuaren prestazioaren jarduerari buruzko informazioa, Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Politiken Sailari zuzendutako idatziaren bidez. Arabako Foru Aldundiak eskatutako informazioa gehienez hogeit hamar egun balioduneko epean igorriko du, eskaera Arabako Foru Aldundiaren sarrera-erregistroan sartzen denetik hasita.

Zortzigarrena. Ekonomia- eta finantza-erregimena. Alderdien konpromisoak

8.1 Aiarako Udalaren konpromisoak (Udalak eguneko arretarako landa-zentroekin)

- a) Aiarako Udala arduratuko da eguneko arretarako landa-zentroaren zerbitzua egongo den higiezinaren kontserbazio eta mantentze-lan egokiak egiteaz eta horniduren gastuak ordaintzeaz.*
- b) Aiarako Udalak hitzeman du eguneko arretarako landa-zentroaren zerbitzuaren gastuen guztizko prestazioari egingo dion ekarpena kostu guztiaren % 20 izatea.*

8.2 Arabako Foru Aldundiaren konpromisoak

Arabako Foru Aldundiak konpromisoa hartu du eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzuaren gastuen guztizko prestazioari egingo dion ekarpena kostu guztiaren % 80koa izan dadin eta garraio egokituko zerbitzuaren prestazioaren gastuen % 100ekoa.


8.3 Urtero aurreko puntuetan hartutako konpromisoei dagokien likidazioa egingo da.

Bederatzigarrena. -Araubide juridikoa

Hitzarmen hau administratiboa izango da. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioko organoei dagokie horren auzibidean, exekuzioan edo horretatik eratorrita agindutako egintza edo erabakien berrikuspena.

Hamargarrena. Iraupena

10.1 Hitzarmen honek lau urte iraungo du eta indarrean sartuko da 2021eko urtarrilaren leian. Bigarren klausulan jasotzen denari lotuta egongo da indarraldia eta eraginkortasuna.



10.2 Hitzarmena luzatu ahal izango da alderdi biek hala adostuz gero, hasierako iraupenaren epe berbera izango du. Alderdi bietako batek ez badu hitzarmena luzatu nahi, beste alderdiari gutxienez bukatu baino sei hilabete lehenago jakinarazi behar dio.

10.3 Udal batek, edozein arrazoi dela medio, ez badu hitzarmena luzatu nahi, inguruko gainerako udalek ez lukete hitzarmena baliogabetu beharko.

Hamaikagarrena. Hitzarmena baliogabetzeko arrazoiak

11.1 Hitzarmena honako arrazoi hauengatik baliogabetu daiteke:


- a. *Alderdi bien arteko akordioa.*
- b. *Edozein alderdiren salaketa, ondorioak izan behar dituen eguna baino gutxienez sei hilabete lehenago formalizatua.*
- c. *Hitzarmen honen ezinbesteko klausulen interpretazioari buruz Gobernu- eta Koordinazio-batzordearen erakundearen desadostasuna.*
- d. *Ezinbesteko betebeharrak konbentzionalak ez betetzea. Baliogabetzeko arrazoi hori aplikatzeko, hitzarmena baliogabetu nahi duen erakundeak, aurretiaz Gobernu- eta Koordinazio-batzordeari ebazteko arrazoia eta baliogabetzeko asmoa jakinaraziko dio. Jakinarazpena egiten denean Batzordea deituko da, eta gehienez hamabost egun baliogabetu epean bilduko da. Helburua izango da beste alderdia entzun ostean ebazpenaren jatorriari buruzko txostena egitea. Batzordearen txostena egindakoan, erakunde interesdunak dagokion ebazpena emango du.*
- e. *Gerora sortutako betetzeko ezintasuna, Udalak aurretiaz erabakitako eguneko arretarako landa-zentroen zerbitzuari buruzko araudi ezberdina onestea edo aldatzea besteak beste, hitzarmen honen bigarren klausulan ezarritako baldintzen eta salbuespenen arabera.*
- f. *Indarraldia eta luzapenaren gehieneko epea igarotzea.*

11.2 Hitzarmena baliogabetu edo iraungitzen denean likidazioa hasiko da. Hori, ukitutako udalari entzun ostean, Arabako Foru Aldundiak formulatuko du eta Gobernu- eta Koordinazio-batzordeak onetsiko du.

11.3 Aiarako Udalaren partetik hitzarmenaren aldebakarreko ebazpena badago, Arabako Foru Aldundiak hitzarmena ez duelako bete, Arabako Foru Aldundia derrigortuta egongo da sor daitezkeen kalte-galerei dagozkien kalte-ordainak bere gain hartzera.

Hamabigarrena. – Datuen babesa

Alderdi biek adierazi dute ezagutzen dituztela honako hauei lotutako xedapenak: datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (Europa Batasuna) Araudia, pertsona fisikoen babesari eta datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa eta 95/46/CE Zuzentaraua (Datuen babeserako erregelamendu orokorra) indargabetzen duena; eta datuak babesteari dagokionez une bakoitzean aplikagarriak diren gainerako arauak. Horrez gain, Hitzarmen honen baitan erabiltzen diren



pertsona fisikoen -datuei dagokienez arau horietan eskatutakoak betetzeko konpromisoa hartzen dute.

Hamahirugarrena. – Hitzarmenari atxikitze prozedura

Hitzarmen hori sinatzeko osoko bilkuraren erabakia behar da, zeinak sinadura hori onesten duen, eta, horretarako, klausula guztiak eta hitzarmen horretako bigarren klausulan aurreikusitako araudia aurretiaz onetsi behar dira berariaz.

HIRUGARRENA. *Alkatea ahalduntzea erabaki horren exekuzioari lotutako beharrezko izapideak eta kudeaketak egiteko.*

LAUGARRENA. *Erabaki honen eraginkortasuna Aiarako Udalaren eguneko arretarako landa-zentroen zerbitzuaren udal-araudia indarrean sartzeak eta horren behin betiko onespenez baldintzatzen dute, hitzarmenaren 2.2 klausulan dagoena betetzeko.*

BOSGARRENA. *Erabaki honen ziurtagiri bat Arabako Foru Aldundira igortzea, hitzarmena sinatu baino lehen onar dezaten.*

Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta”.


Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) adierazi du testu bat irakurriko duela, honako hau dio:

“Aldundiaren eta Udaletxearen arteko hitzarmena

"2015ean, gizarte-zerbitzuen eskumenak Aldundiaren eta udalen artean banatzeari buruzko lege-dekretu bat argitaratu zen. Aldundiak prest izan behar zituen gizarte-zerbitzu guztietarako zerbitzu teknikoak, ekonomikoak eta juridikoak. Baina ez da horrela izan, eta egin den gauza bakarra etxez etxeko zerbitzua izan da, eta une honetan ZLZkoa.

2019an, Eudelen lurraldearteko akordioa lortu zen, izaera bereko zentroen lankidetzarako tokiko lankidetzaren sare bat egiteko, kontuan hartuta udal guztiek ez dutela GLLZ zerbitzurik, eta akordio horrek alkatetzaren laguntza izan zuela, gizarte-zerbitzuetako profesionalekin kontrastatu zela eta Aldundira joan zela. Erregelamendu-eredua eta hitzarmena eginda zeuden. Baina, egungo Gizarte Ongizateko diputatuak ez zuen aintzat hartu eta ez dakigu zergatik. Are gehiago, Gizarte Ongizateko aurreko diputatuak Batzar Nagusietan egindako agerraldian adierazi zuen eskumenak eskuordetzea legez kanpokoa zela.

Urtarrilean, udalaren osoko bilkurak, EH Bilduren abstentzioarekin, Arabako Foru Aldundiko Gizarte politiketako Sailaren eta Aiarako Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena, Aiarako Udaleko Eguneko Arretarako Landa Zentroaren zerbitzua arautzen duen udal-erregelamendua eta Eguneko Arretarako Landa Zentroaren zerbitzuaren Ordenantza Fiskala onartu zituen. Azken horri dagokionez, esan behar dugu ez zela aurkeztu Ordenantzaren



onarpenarekin batera aurkeztu behar zen memoria tekniko-ekonomikoa, Udalak tasak aldatzeko eta ez zegoela idazkari kontu- hartzaileak sinatuta.

EH-Bilduk uste du Aldundiak Gizarte Zerbitzu zentralizatua izan nahi duela, eta ez udalen esku. Uste du toki-erakundeei, hala nahi badute, kudeaketa beren gain hartzeko eta haien autonomia errespetatzeko aukera eman behar zaiela. Horretarako, Aldundiak bi aukera eman dituela gaineratu dute: edo Aldundiak zerbitzu horien % 80 ematen ditu, eta beste % 20a Udalak jartzen du; edo Udalak kudeatu nahi badu, egin egiten du, baina laguntzarik gabe, eta hori ez da kudeaketa hori bere esku uzteko modurik egokiena. Hori dela eta, EH Bildu Aiarak abstenitzea erabaki du”.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du eskumenak ezin direla eskuordetu baieztatzeak harritzen duela, izan ere, oraintxe bertan eskuordetuta dago. Gaineratu du Aldundia dela tasak kobratzeaz arduratzen dena, eta kudeaketaren zentralizazio-ereduari dagokionez adierazi du udalek modu aktiboan parte hartzen dutela EALZren eguneroko kudeaketan.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) esan du beste udal batzuk ez direla ekonomikoki kudeatzeko gai eta Aldundiak ez diela aukera ematen.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du konpetentzia bat eskuordetzen ari direla, baina horrek ez duela esan nahi galdu egiten denik; izan ere, Udalbatzak erabakitzen duenean berreskura daiteke.

Gai honen aldeko txostena egin zen 2021eko ekainaren 8ko bilkuran, Soziosanitarioa, Berdintasuna, Immigrazioa eta Adineko Pertsonak Informazio Batzordean.

Udalbatza jakinaren ganean geratu da, eta erabaki du (EAJ-PNV eta AIARA BATUZ udal-taldeko ordezkarien aldeko botoekin eta EH BILDU udal-taldeko ordezkarien abstentzioarekin) transkribatutako erabaki-proposamena onestea, idatzita dagoen moduan.

3.- Ekainaren 28a LGTBI harrotasunaren nazioarteko egunaren erakundearen deklarazioa.- Jarraian, Udalbatzari jakinarazten zaio EH-BILDU udal-taldeak ekainaren 28a LGTBI harrotasunaren nazioarteko egunaren erakundearen deklarazio proposamena aurkeztu zuela, baina momentu hartan ez zutenez Eudelen proposamena, 2021eko ekainaren 8an izandako Gizarte eta Osasun, Berdintasun eta Immigrazio Batzordean erabaki zen gai hori mahai-ganean uztea Eudelen testua izan arte eta adostutako erakundearen deklarazio bakar batera iristea.

Udal talde politikoak adostasun batera iritsi dira eta onesten den erakundearen deklarazioa honako hau da:

“EKAINAREN 28a, SEXU ETA GENERO ANIZTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Orain dela 52 urtetik, Ekainaren 28an Sexu eta Genero Aniztasunaren aldeko Eguna ospatzen da:



borroka disidente luzea eta egindako lorpenak ospatzeko eguna da, baita eskubideen eremuan aurrerantz egiteko falta den guztia aldarrikatzeko eguna ere: eskubide berberak dituen jende askearen gizartea izateko, sexu-desioaren orientazioagatik edo genero-identitateagatik bereizkeriarik gabe.

COVID-19aren ondorioz bizi dugun egoera eragin handia izaten ari da gure kolektiboan ere; beraz, sexu- eta genero-aniztasunaren aurkako gorrotoak eragindako erasoak salatzen jarraituko dugu. Eraso horiek ez dira gure inguruan bakarrik gertatzen. Lesbiana, gay eta bisexualen lege-babesean aurrerapen handiak egin diren arren, NBEko 69 estatu kidek sexu bereko helduen artean adostutako sexu-ekintzak zigortzen jarraitzen dute, ILGAK (Lesbiana, Gay, Bisexual, Trans eta Intersexen Nazioarteko Elkarte) adierazten duen bezala. Human Rights Watchen arabera, pandemiak desberdintasun arrakalak eragin ditu, eta kolektibo batzuk besteak baino ahulagoak dira. LGTBI kolektiboaren aurkako aurreiritziak nabarmenak izan dira Covid-19ri emandako erantzunetan munduko eskualde askotan.

Aurtengo ekainaren 28an eta urteko egun guztietan LGTBI pertsonen eta haien inguruko ondoan jarraituko du, LGTBIfobiaren aurka borrokatuz. Gaur egun, oraindik ere beharrezkoa da gure gizartean oraindik indarrean dauden diskriminazioen aurkako borroka sendotzea. Gizarte osoaren erantzukizuna, diskriminazio- eta indarkeria-mota guztien aurka borrokatzeko.

Herri inklusiboa eta askotarikoa aldarrikatzen dugu, aniztasuna aztergai dugun esparrutik ulertuta, baina baita bere osotasunean ere. Aiarako Udalean indarrak batuko ditugu gizarte- eta erakunde-eragile guztiekin, gizarte justuagoa, errespetuzkoagoa eta integratzaileagoa eraikitzeko. Berdintasunerako eskubidearen eta sexu-orientazio eta generoagatiko diskriminaziorik ezaren alde lan egiten jarraituko dugu, aniztasunaren bizipen askea sustatzeko helburuarekin.

Urtero bezala, ekainaren 28 honetan aitortu nahi dugu LGTBI kolektibo eta pertsona ugariren borroka luze eta ordainezina: garai zail hauetan, pertsonen emantzipaziorako erreferente direla erakusten jarraitzen dute.


Era berean, Udal honek LGTBI pertsonen eskubideekin urteko egun guztietan duen konpromiso politikoa berretsi nahi dugu. Adierazpenetatik haratago, gure konpromisoa politika zehatzetan islatu behar da, bakoitzak bere giza baliabide, baliabide tekniko eta ekonomikoekin: mugimendu feministako eta LGTBI mugimenduko ordezkari eta adituekin adostu behar diren politikak.

Horregatik, Aiarako Udalak konpromisoa hartzen du honako hau egiteko:

1) LGTBI pertsonen Arabako egoeraren eta beharren diagnostikoa partekatzea, pandemiaren krisiaren eraginaren ondorioz, beste erakunde, kolektibo eta gizarte-eragile batzuekin koordinatuta.

2) Egindako diagnostikoari erantzungo dion plan edo neurri-multzoa bultzatzea, premiazoenak diren ekintzak lehenetsiz, besteak beste, arlo hauetan: soziala, enplegua, osasuna, etab. Krisiari aurre egiteko plangintza orokorrean, gure udalerriko LGTBI pertsonen egoerari eta beharrei erantzuteko neurriak jasotzea.

3) LGTBI pertsonen aurkako indarkeriaren aurrean erakundeen koordinazio, arreta eta erantzun publikorako protokoloak diseinatzea eta abian jartzea.



4) *LGTBI pertsonen eskubideak bermatzera bideratutako neurriak aktibatzea, hala nola: administrazio-formularioetan aldaketak egitea binarismoa gainditzeko, aldagelak eta komunak egokitzea instalazio publikoetan, igerileku publikoen araudiak.*

5) *LGTBI biztanleriaren aurkako gorroto-diskurtsoak identifikatzeko mekanismoak ezartzea (behatokiak, aldizkako azterketa, etab.), eta hainbat eremutan (hezkuntza, kultura, komunikazioa, enpresa eta gizartea, oro har) diskurtso horiei eta jazarpen eta eraso LGTBIFobikoei aurre egiteko ekintzak bultzatzea (protokoloak, araudi espezifikoak, etab.).*

6) *Haurrak eta nerabe transexualak babesteko neurriak ezartzea, bereziki trans errealitatea barne hartzen duten hezkidetzaprozesuak, gizarte- eta hezkuntza-eragileekin.*

7) *Sexu eta genero disidentziaren gaineko prestakuntza-prozesuak bultzatzea, langile publiko eta politikoentzat, bereziki, jendeari arreta emateko, eta gizarte- eta hezkuntza-esparrurako.*

8) *Sentsibilizazio-kanpaina feministak egitea, egungo testuinguru sozialera egokituta, epe labur, ertain eta luzean, sexu-genero dikotomiari, heteronormatibitateari, sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen adierazpen-aniztasunari eta eremu desberdinetan LGTBI pertsonenganako indarkeriaren eta diskriminazioaren adierazpen eta forma anitzei buruzko kontzientzia kritikoa hartzea errazteko.*

9) *Zaintzei buruzko lan-ildoak aktibatzea ikuspuntu feministatik eta LGTBI ikuspegitik, zaintza sare komunitarioekiko, kolektibo feministekiko, LGTBI kolektiboekiko eta beste gizarte-eragile batzuekiko lankidetzaren sustatuz: besteak beste, adinekoei, desgaitasuna dutenei edo gizarte-bazterketako egoeran daudenei arreta emateko zerbitzu publikoakberrikustea (egoitzetan, eguneko zentroetan, etxez etxeko zerbitzuan, etxebizitza komunitariotean eta abarretan arreta emateko protokoloak), eta ekimen komunitarioak abiaraztea.*

10) *Adinekoen egoitzetan, etxebizitza komunitarioetan edo eguneko zentroetan, besteak beste, hainbat neurri modu koordinatuan sustatzea, LGTBI pertsonen beren aukera sexuala eta genero-aukera askatasunez bizi ahal izan dezaten, diskriminaziorik gabe, eta, besteak beste, honako hauek barne hartuta: sentsibilizazio-kanpainak, espazio bitarren berrantolaketa, eta LGTBI adineko pertsonen ekarpena ikusarazteko eta balioesteko jarduerak.*


11) *Zeharka, LGTBI kolektiboekin, kolektibo feministekin eta adituekin identifikatutako ekintza guztien diseinu, jarraipen eta ebaluaziorako elkarriketa lotesle eta iraunkorreko espazioak gaitzea.*

Amaitzeko, herritarrei dei egiten diegu LGTBI mugimenduak eta mugimendu feministak gure udalerrri eta eskualdean deitutako ekintzetan parte har dezaten”.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) esku hartu du modu positiboan baloratzeko erabaki batera heldu izana eta elkarrekin egin izana, eta herritarrei helaraztea, nahiz eta apur bat harago joatea eskertuko luke.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta aho batez erabaki du, ekainaren 28a, LGTBI harrotasunaren nazioarteko egunaren erakundearen deklarazioaren transkribapena onestea, eta herritarrei udalaren webgunearen bidez helaraziko zaie.

4.-Lanpostu-zerrenda (LZ) aldatzeko erabakiaren akatsak konpontzea Administrazio Orokorreko teknikari plaza bat sortzeko.-



Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio Administrazio Orokorreko teknikari (AOT) plaza bat sortzeko lanpostu-zerrenda (LZ) aldatzeko erabakiaren akatsak konpontzeko erabaki-proposamena. Honako hau dio:

“ERABAKI-PROPOSAMENA

Ikusi da 2021eko martxoaren 10ean jaso den Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu sailaren, Erakunde Harremanetarako sailburuordetzaren, Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzaren idatzia, bertan zenbait akats adierazten zizkiguten AOT plaza sortzeko udaleko lanpostu-zerrenda aldatzeko erabakian. Honako alderdi hauek dira:

- *Sartzeko eskatutako titulazioa.*
- *Hautaketa- eta hornikuntza-sistema.*
- *Arduraldi-erregimena finkatzea.*

Ikusi da apirilaren 18ko Toki Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bategina onesten duen 781/1986 Legegintzako Errege-Dekretuaren 169.2 a) artikuluan jasotakoa. Honako hau dio:

“...2. Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 100.2 artikuluan aurreikusitako arautegi-arauak eman arte, aurreko zenbakiak erreferentzia egiten dion funtzionarioen aukeraketak, honako arau hauek jarraituko ditu:


- a) Azpieskala Teknikoaren sarrera oposizio askearen bidez egingo da eta beharrezkoa izango da honako titulu hauetakoren bat izatea: zuzenbidea, politika, ekonomia edo enpresa zientziak, merkataritza Intendentea edo aktuarioa...”*

Eta ikusi da urriaren 30eko Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 76 artikulua, Hirugarren Xedapen Iragankorrari lotutakoa.

*Ikusi da, halaber, urriaren 30eko Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 61.6. artikulua, zeinak hautaketa-sistema eta -prozesuak arautzen dituen, eta honako hau jasotzen da “...6. Karrerako funtzionarioak hautatzeko, **oposizio-sistema eta oposizio-lehiaketaren sistema erabiliko dira, eta, egoera edozein dela ere, proba bat edo batzuk egin beharko dira beti, lehiakideen gaitasuna erabakitze eta lehentasun-ordena ezartzeko.***

Salbuespen modura, legearen arabera erabili ahal izango da lehiaketa-sistema hutsa; merezimenduen balioespena besterik ez da egingo orduan.

Eta funtzionarioak hautatzeko prozeduraren oinarrizko arauak eta gutxieneko programak onartzen dituen ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretuaren 2. artikulua azken xedapenetatik



lehenaren arabera oinarritzko arau izaera du; honako hau jasotzen da: “Funtzio publikoan sartzea, izaera orokorrarekin, oposizio-sistemaren bidez egingo da, plazen izaeragatik edo egin beharreko lanagatik oposizio-lehiaketa edo lehiaketa sistema erabiltzea egokiagoa denean izan ezik...”.

Ikusi da Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen Legegintzako Errege Dekretuaren 78 artikulua, Karrerako funtzionarioen lanpostuak betetzeko printzipioak eta prozedurei dagokiona, eta honako hau jasotzen da:

“1. Administrazio publikoek berdintasun-, merezimendu-, gaitasun- eta publikotasun-printzipioetan oinarritutako prozeduren bitartez beteko dituzte lanpostuak.

2. Administrazio publikoetako bakoitzean lanpostuak betetzeko orduan, lehiaketa-prozedura eta deialdi publiko bidez egingako izendapen askea erabiliko dira...”

Ikusi da uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 15.1 artikuluan jasotakoa: lanpostu-zerrendek horietako bakoitzerako nahitaez adieraziko dute besteak beste, dedikazio-erregimena.

Aurreko guztia dela-eta, Udalbatza Osoak honako erabaki hau onestea proposatu du:

LEHENENGOA.- 2020ko azaroaren 19an egingako Udalbatzaren osoko ohiko bilkuran onetsitako Administrazio Orokorreko teknikari plaza sortzeko udal honetako lanpostu-zerrenda aldatzeko erabaki-onespena berrestea. Plazaren ezaugarrien laburpena honako hau da:


- Administrazio Orokorreko Teknikari plaza, Idazkaritzako unitate organikoari atxikia. Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da, eta hornidura-sistema, berriz, lehiaketa, AI taldekoa. Titulazio-baldintza: Zuzenbideko, Politika, Ekonomia edo Enpresa Zientzietako, Merkataritzako edo Aktuaritzako Intendenteko lizentziatura edo gradu., 3. hizkuntza-eskakizuna. 24. mailako lanpostu-mailako osagarria eta 17.255,00 euroko berariazko osagarria. Eskuragarritasun/dedikazio-erregimena: lanaldi osoa/aldizka erabilgarritasuna lanalditik kanpo.*

BIGARRENA. *Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/98 Legearen 16. artikuluan jasotakoaren arabera, lanpostuen-zerrendaren aldaketa hau argitaratzea Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta Udaleko webgunean.*

HIRUGARRENA. *Estatuko Administrazioari eta Euskal Autonomia Erkidegoko organo eskudunari honen kopia bat igortzea.*

ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.-

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO AGIRIA”



Halaber, Batzordeari Eusko Jaurlaritzaren Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostenaren 2021eko maiatzaren 11ko berri ematen zio, AOT plazako hizkuntza-eskakizunari buruzkoa. Honako hau dio:

“Alkate hori:

2021eko apirilaren 15ean Tramitagunen jaso genuen bidali zeniguten idatzia (575-1055301 espedientea), Aiarako Udaleko lanpostu-zerrendan proposatutako aldaketen gainean aginduzko txostena eskatzen duena. Geroago, txostena egiteko ezinbestekoak zaizkigun, gure zuzendaritzatik eskatutako dokumentu eta informazio gehigarria jaso genuen, maiatzaren 11n.

Honakoa da Aiarako Udalak sortuko duen lanpostu bat dela-eta, egindako proposamena:

LANPOSTUAREN IZENA	HE	Proposatutako derrigortasun-data
Administrazio Orokorreko Teknikaria	3. HE	bai¹

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 97.5 artikulua eta Herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak xedatutakoaren ondorioz, aginduzko txosten hau ematen da.


1. PROPOSATUTAKO HIZKUNTZA-ESKAKIZUNARI DAGOKIONEZ:

Hizkuntza-eskakizunak lanpostua betetzeko eta bertan lan egiteko beharrezkoa den euskarazko hizkuntza-gaitasun maila zehazten du, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 97.2 artikulua adierazten duen bezala. Beraz, lanpostu bakoitzari dagokion hizkuntza-eskakizuna ezarri behar da lanpostuak betetzen dituen funtzio edota zereginak kontuan izanda.

Erakunde horretatik bidalitako dokumentazioan sortuko den lanpostuaren funtzioak² ikusirik eta kontuan izanik Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 97.2 artikulua eta apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 7. artikulua xedatutakoa, zuzendaritza honen iritziz, 3.

¹ Aiarako Udalaren eskaeran lanpostu horri dagokion hizkuntza-eskakizuna ezinbesteko baldintza izan dadin aipatzen du soilik. Inolako datarik aipatu gabe. Beraz, zuzendaritza honek ondorioztatzen du derrigortasun-data ezarriko zaiola.

² “Lege Aholkularitza eman bai Udaltzako kideei, zein udaleko arlo eta zerbitzuei eta Udalerriko Administrazio Batzarrei”, “Idazkaritzarekin lankidetzan aritu udal-erakunde guztiek sortutako administrazio ekintzen legezotasun-kontrola betetzeko: dekretuak, hitzarmenak, etab.”, “Lege tratamendua behar duten gutunak, ordenantzak eta orokorrean idazkiak idatzi”...



**TEL.: 945 01 81 10 – FAXA: 945 01 95 35 –
E-MAIL kulturherri@euskadi.eus**

HE onargarria da; baina, lanpostuaren ezaugarri komunikatiboak kontuan harturik, aztertzea da ez ote den egokiagoa 4. HE.

2.-DERRIGORTASUN-KOPURUARI DAGOKIONEZ:

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 11. artikulua 3. paragrafoak ezarritakoaren ondorioz, derrigor bete beharreko indizea 2016ko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistikan euskararen ezagutza-mailari buruz jasotako datuetatik aterako da (2018ko apirilaren 13ko EHAA argitaratu zen estatistika ofizial horren emaitzari buruzko iragarkia).

*Gure eskura jarritako datuen arabera, Aiarako Udalak guztira **14** lanpostu ditu. Gauzak horrela, eta erakundeari dagokion derrigorrezko soziolinguistikazko indizea gogoan (% **49,09**), berori beteta geratuko litzateke **7** lanpostutan hizkuntza-eskakizuna derrigorrezko izaeraz ezarrita.*

3.- DERRIGORTASUNAREN ESLEIPEN-PROPOSAMENARI DAGOKIONEZ:


Derrigortasun-datak ezarri behar dira apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 20. artikulua eta ondorengoek finkatutako irizpideak betez. Bidalitako dokumentazioan emandako azalpenak ikusirik eta egindako proposamena azterturik, ez deritzogu aipatutako irizpideetatik aldentzen denik.

*Aiarako Udalari (% **49,09**) apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 17. artikulua c) idatz-zatian finkatutako helburua betetzea dagokiola, eta, beraz, jendaurreko eta gazteriarekin harremanak dituzten ataletan, eta gizarte izaerako ataletan ere herritarrek euskaraz harremanak izateko eskubideak bermatuta egon behar duela; eta, horiez gain, administrazio-atal elebidunak ezarriko dira izaera orokorreko ataletan, erakundearen erabilera normalizatzeko planaren arabera.*

4.- LANPOSTUARI DERRIGORTASUN-DATA ZEHATZA EZ ZEHAZTEARI DAGOKIONEZ:

Derrigortasun-data ezartzerakoan, 86/1997 Dekretuaren 22. artikulua bigarren idatz-zatian xedatutakoa izan behar da kontuan: “Derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten dotazioetan, dagokion plangintza-aldiaren barruan jarriko da derrigortasun-data. Aintzakotzat hartuko da dotazio horietako titularrek denbora horretan benetan maila horretara iristeko modua badutela”.

Ondorioz, lanpostua hutsik badago edo lanpostuaren jabeak dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta badu edo hizkuntza-eskakizuna egiaztatetik salbuetsita badago, igarotako derrigortasun-data ipini ahal izango da, eta halako kasuetarako horixe da Zuzendaritza honen ohiko gomendioa.



Gomendioa: Igarotako derrigortasun-data ezarri nahi bada, Udalaren Osoko bilkurak lanpostua onartzen duen eguneko data jartzea gomendatzen dugu, (uuuu/hh/ee) formatuarekin. Horrela, etorkizun batean egon litezkeen arazoak ekidingo lirateke (lanpostua sortzeko prozesuaren balizko luzapen batean gerta daitezkeenak, adibidez).

5.- PROZEDURARI DAGOKIONEZ:

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan ezarritako prozedurari jarraituz, txosten hau jaso ondoren, erakunde horretako gobernu organo eskudunak hartu beharko du 23.4 artikuluan ezarritako erabakia egindako proposamenaren gainean.

Halaber, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 16. artikuluan dioenari jarraituz, lanpostu zerrenda eta berari dagozkion aldaketak Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dira.

Adeitasunez, agur.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko maiatzaren 11n.

JOSEBA LOZANO SANTOS

HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARIA”


Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta aho batez erabaki du honako erabaki-proposamen hau onestea:

LEHENENGOA. Udal honetako Administrazio Orokorreko teknikari plaza sortzeko lanpostuen-zerrenda aldatzeko erabaki-onespena berrestea, zeina 2020ko azaroaren 19an egindako Udalbatzaren ohiko bilkuran onetsi zen. Sortutako plazaren ezaugarrien laburpena honako hau da:

- Administrazio Orokorreko Teknikari plaza, Idazkaritzako unitate organikoari atxikia. Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da, eta hornidura-sistema, berriz, lehiaketa, A1 taldekoa. Titulazio-baldintza: zuzenbideko, Politika, Ekonomia edo Enpresa Zientzietako, Merkataritzako edo Aktuaritzako Intendenteko lizentziatura edo gradu., 3. hizkuntza-eskakizuna. 24. mailako lanpostu-mailako osagarria eta 17.255,00 euroko berariazko osagarria. Eskuragarritasun/dedikazio erregimena: lanaldi osoa/aldizka erabilgarritasuna lanalditik kanpo.

BIGARRENA. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/98 Legearen 16. artikuluan jasotakoaren arabera, lanpostuen-zerrendaren aldaketa hau argitaratzea Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta Udaleko webgunean.

HIRUGARRENA. AOT plazak nahitaezko PL3 hizkuntza-eskakizuna du (derrigortasun-data: 2021/06/07).



LAUGARRENA. Estatuko Administrazioari eta Euskal Autonomia Erkidegoko organo eskudunari honen kopia bat igortzea.

5.-Euskara ikasi eta hobetzeko laguntzen emakida arautzen duen ordenantza aldatzeko proposamena.- Jarraian, Udalbatzari euskara ikasi eta hobetzeko laguntzen emakida arautzen duen ordenantza aldatzeko proposamenaren berri ematen zaio, honako hau dio:

ERABAKI-PROPOSAMENA

IKUSITA.- EH-Bildu udal-taldeak eginiko aldaketa-eskaera (sarrera-zk.: **1063, 2021/04/06koa**) euskara ikasteko eta hobetzeko laguntzak ematea arautzen duen ordenantzari dagokionez. Honela dio hitzez hitz:

“Urdinez dago ordenantzan agertzen den esaldia eta aldatu behar dena eta gorriz, ordea, zer jarri behar den urdinaren ordez.

Hirugarrena

b) *Ikastaroan izena ematerakoan , horren ordez, azterketa garaia ailegatzen denean 16 urte edo gehiago edukitzea, eta, egonaldiak Familia Euskaldunetan programaren kasuan, programak berak ezarritako gutxieneko adina edukitzea parte hartu ahal izateko.*

c) *Euskara ikasteko matrikulaturik egotea 1. urratsetik 12. urratsera bitarteko maila batean; horren ordez, Aletik C1era edo euskara hobetzeko ikastaroak egiteko matrikula , edozein zentro homologatutan.*

e) *Hautatutako ikastaroak...bermatu beharko du. Kendu paragrafo osoa*

f)

- *Euskaltegietan edo norberak bere kontu euskara ikasteko homologatutako zentroetan egindako ikastaroen kasuan, diruz lagunduko dira bakar-bakarrik ikasturtean zehar gainditu diren euskalduntze urratsak...emandako maila bakoitzarentzat Horren ordez ikastaroak diruz lagunduko dira.*

- *Udalerrian bertan Udalaren parte hartzearekin eratu daitezkeen ikaskuntza taldeen kasuan, beharrezkoa izango da gutxienez eskolen ehuneko 80ra eta horren ordez, 75ra*

Laugarrena. - Dirulaguntzen zenbatekoa.

a) - *Euskaltegietan edo norberak bere kontu ikasteko HABEk homologatutako zentroetan egindako ikasketak: ehuneko 75. Horren ordez 100*

- *Udalerrian bertan ikasteko taldeak, Udalaren parte hartzearekin: ehuneko 75. Horren ordez 100*

- *Egonaldiak Familia Euskaldunetan Programako egonaldiak: ehuneko 75. Horren ordez 100*



*b) Euskaltegietan eta norberak bere kontu ikasteko HABEk homologatutako zentroetan egindako ikasketen kasuan, euskalduntze prozesuko urrats bakoitza (1etik 12ra) behin bakarrik lagunduko da diruz eskatzaile bakoitzaren euskalduntze prozesu bakoitzean. **Kendu osorik***

*c) Urratsa gainditu den ala ez, **kendu***

Seigarrena.- Eskabideak eta erantsitako agiriak aurkezteko epea.

*Eskabideak eta erantsitako agiriak Aiarako Udalean aurkeztu beharko dira urte bakoitzeko **abenduaren 1aren eta 30aren artean, urriaren 1etik 31ra** eta urteko eskaera bakoitzean aurreko urteko urritik (hau barne) eskaerak.*

Zortzigarrena

Gehienez ere 2000 euro...muga hori gaindituko. Paragrafo osoa kendu."

IKUSITA.- 2021/04/13ko eta 2021/05/11ko Euskara eta Hezkuntza Batzorde Informatiboetan eztabaidatu zela gai hau.

Horiek horrela, Udalbatzak honako ERABAKI hau hartzea proposatzen da:

LEHENENGOA.- Euskara ikasteko eta hobetzeko laguntzak ematea arautzen duen ordenantza aldatzea. Behin betiko testua honela geldituko da:

Lehenengoa.- Araudiaren xedea.


Araudi honen xedea da Udaletik urteko laguntzak ematea Aiarako udalerrian erroldaturik dauden eta bertan bizi diren pertsonen, euskara ikasi edo hobetu dezaten.

Bigarrena.- Bekak emateko araubidea.

Laguntzak emateko, aintzat hartuko da diruz lagun daitekeen gastua, eta araudi honetan haren gainean ezarritako portzentajea emango da. Diruz lagundu daitekeen gastutzat hartuko da eskoletara joateko matrikularen gastua. Inolaz ere ez da elikadura, ostatu, garraio, material... gasturik diruz lagunduko. Salbuespena Egonaldiak Familia Euskaldunetan programarako ezarritakoa izango da.

Dirulaguntzak izango dira euskara ikasketengatik emango diren laguntzak, honako lege hauetan ezarritakoaren arabera: otsailaren 7ko 3/97 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntza eta transferentziei buruzkoa; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; Toki Korporazioen Zerbitzu Erregelamendua, eta aplikatu daitekeen gainerako legeria.

Eskatzaileak egiaztatzen badu baldintza orokorrak betetzeaz gain, langabezian eman dituela delako ikastaroaren egunen erdia edo gehiago (dagokion euskaltegiak ziurtatutako ikastaroaren hasierako eta bukaerako data ofizialetik hasita), diruz lagun daitekeen gastuaren ehuneko 100era arte jasoko du.



Hirugarrena.- Onuradunak eta haien betebeharrak.

Honako betekizun hauek bete beharko dituzte laguntzen onuradunek:

a) Aiarako udalerrian erroldaturik egon, diruz lagundu beharreko ikastaroa hasten den data baino aurreko sei hilabeteetan gutxienez etenik gabe, eta udalerrri horretako biztanle izan.

b) Azterketa garaia heltzen denerako 16 urteak beteta izatea, eta, Egonaldiak Familia Euskaldunetan programaren kasuan, programak berak ezarritako gutxieneko adina edukitzea parte hartu ahal izateko.

c) Euskara ikasteko matrikulaturik egotea A1etik C2ra bitarteko maila batean, biak barne, edo euskara hobetzeko ikastaro batean, eta matrikula hori euskaltegietan edo euskara norberak bere kontu ikasteko HABEk homologatutako zentroetan egin izana, edo, bestela, udalerrri bakoitzean, Udalaren parte hartzearekin, eratu daitekeen ikaskuntza taldeetako batean egin izana.

d) Barnetegi bat eginez gero, eskolak bakarrik lagunduko dira diruz, eta ikaslearen ardurapean egongo dira ostatua eta elikagaiak. Ondorioz, kasu horietan, Udalari aurkezten zaion matrikularen frogagirian xehetasun osoz jaso beharko dira irakaskuntzako gastuak eta elikagai eta ostatukoak zeintzuk diren.


e) Diruz lagunduko dira euskaltegietan edo norberak bere kontu euskara ikasteko homologatutako zentroetan egindako ikastaroak. Aurkezten diren ziurtagiriek emandako maila gainditu den edo ez adierazten duen informazioa eman beharko dute, eta ikaslea zein neurritan bertaratu den jakinarazi beharko dute, emandako ordu kopurua eta horietako bakoitzera bertaratutako ordu kopurua xehatuz. Eskatzailea eskolen %75era bertaratu beharko da gutxienez dirulaguntza eskuratu ahal izateko. Udalerrian bertan Udalaren parte hartzearekin eratu daitezkeen ikaskuntza taldeen kasuan, beharrezkoa izango da gutxienez eskolen %75era bertaratzea dirulaguntza eskuratzeko. Ziurtagiriek maila gainditu ala ez gainditzeari buruzko informazioa eman beharko dute, baita bertaratze orokorrari buruzkoa ere.

f) Egonaldiak Familia Euskaldunetan programan parte hartzea: gehienez ere, bi hilabeteko egonaldia lagunduko da diruz pertsona bakoitzeko, eta egonaldi hori 5 urteko gehieneko epean bete beharko da.

g) Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak ordainduta edukitzea.

h) Aiarako Udaleko udal altxortegiko ordainketak egunean edukitzea.

i) Gutxienez, ikastaroaren egunen erdian langabezian egotea. Diruz lagun daitekeen gastuaren ehuneko 100era arteko laguntza jaso nahi duten eskabideei soilik eskatuko zaie baldintza hori.



j) Dirulaguntza hauek ematea bateragarria izango da xede bereko beste dirulaguntza edo laguntza batzuk eskuratzearekin. Eskabidearekin batera, aitortpena aurkeztu beharko da xede bererako beste laguntza edo dirulaguntza eskaerarik egin den edo ez argitzeko. Halakorik eskatu bada, egindako eskaeren fotokopia konpultsatuak nahiz kasuan kasuko ebazpenen fotokopia konpultsatuak aurkeztuko dira (eman den –kopurua adieraziz– /ez den eman). Bestela, ebazpen zain egotearen aitortpena egin beharko da. Beste dirulaguntza batzuen gaiaren gainean jarraipen espresa egingo da, eta onuradunak eskatzen zaizkion datu guztiak aurkeztu beharko ditu.

k) Dirulaguntza eskatzen dutenek beste erakunde batzuek (Arabako Foru Aldundia, HABE, Eusko Jaurlaritza, etab.) deitzen dituzten eta aplikagarri zaizkien laguntzak ere eskatu beharko dituzte.

l) Hiru urteko edo ikasturte akademikoko tartea emango da maila bakoitza gainditzeko. Denbora horretatik aurrera, ez da udal-dirulaguntzarik emango maila berean aritu izana frogatzeagatik.

m) Eskaera aurkeztean agirietakoren bat falta edo gezurrezkoa bada, eskabideak ez du baliorik edukiko eta erantzukizuna eskatu ahal izango da egin ahal izan diren arau hausteengatik. Ezingo dira onuradun izan Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13. artikuluan zehaztutako inguruabarretatik bat edo beste betetzen duten pertsonak.

Laugarrena.- Dirulaguntzen zenbatekoa.


a) Euskaltegietan edo norberak bere kontu ikasteko HABEk homologatutako zentroetan egindako ikasketak: %100 (ehuneko ehuna).

- Udalerrian bertan ikasteko taldeak, Udalaren parte hartzearekin: %100 (ehuneko ehuna).

- Egonaldiak Familia Euskaldunetan Programako egonaldiak: %100 (ehuneko ehuna).

Ikastaroen kasuan, laguntzaren portzentajeak udal honi urteko dirulaguntza eskatzen zaion urtearen aurreko urteko urritik (hura barne) aipatutako dirulaguntza eskatzen den urteko irailera (hura barne) arte egindako ikastaroaren edo ikastaroen matrikularen kostuari heltzen dio. Udaleko urteko aurrekontuen partidan xede horretarako erabiltzeko moduan dagoen kopurua behar bestekoa izango ez balitz alderatutako eskaera guztiak betetzeko, langabezia-egoera frogagarri eta egiaztatuan dauden eskatzaileei eskatutako dirulaguntzaren %100 ematea lehenetsiko litzateke, eta, ondoren, diru kopurua hainbanatuko litzateke betekizunak betetzen dituzten gainerako eskatzaileen artean. Horrela, eskatzaile guztiek, matrikularen kostuko kasuan kasuko portzentaje proporzional berdina eskuratuko dute laguntza gisa.

b) Euskaltegietan eta norberak bere kontu ikasteko HABEk homologatutako zentroetan egindako ikasketen kasuan, A1etik C2ra bitarteko euskalduntze-prozesuaren maila bakoitzari hiru urteko edo ikasturte akademikoko epean eman ahalko zaio dirulaguntza,



eskatzaileak maila gainditu duela egiaztatu ondoren. Egonaldiak Familia Euskaldunetan programaren kasuan, gehienez ere, bi hilabeteko egonaldia da diruz lagunduko dena pertsona bakoitzeko, eta egonaldi hori 5 urteko gehieneko epean bete beharko da. Egonaldiakoko egonaldi bati dagokion dirulaguntza egonaldia egin den urte berdinari dagokion eskaera epean bakarrik egin ahalko da

c) Beste erakunde edo entitate batzuen laguntzak edo dirulaguntzak badaude, kasu bakoitzerako finkatutako portzentajea emango da, beste erakunde edo entitate batzuek diruz lagundu ez duten matrikularen kostuari dagokion zatiaren gainean.

d) Barnetegi batean ikasi izan bada, eskolak baino ez dira diruz lagunduko, eta ikaslearen ardurapean egongo dira ostatua eta elikagaiak.

Bosgarrena.- Aurkeztu beharreko agiriak

a) Eskabidea, eskatzen diren datu guztiakin. Bertan, beste dirulaguntza eskabide batzuk badauden edo ez aitortu beharko da eta, hala badagokio, eskabide horien fotokopia konpultsatuak aurkeztu. Eskabideak erantzuna jaso badu, ebazpenaren (emandako kopurua edo ukapena) fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko da. Ebazpena eman zain egonez gero, hori adierazten duen aitortpena egin beharko da.

b) Eskatzailearen Nortasun Agiriaren fotokopia konpultsatua.


c) – Euskaltegiko edo norberak bere kontu ikasteko zentro homologatuko ziurtagiri originalak: ikasturtean zehar emandako maila bakoitzari buruzko hurrengo ezaugarriak adierazi beharko dira: hasiera eta amaiera data; emandako eskola ordu kopurua eta ikaslea horietatik zenbatera bertaratu den, bertaratze portzentajea adieraziz; maila gainditu den edo ez, eta matrikularen kostua emandako maila bakoitza gorabehera xehatua. Barnetegi batera joanez gero, kostua jarraian adieraziko den moduan xehatua aurkeztu beharko da: batetik, eskolen kostu osoa (emandako maila bakoitzaren kostua xehatuz aldi berean) eta, bestetik, ostatu eta elikagaien kostua.

– Udalaren parte hartzea duten eta udalerrian bertan ikasteko taldeen ziurtagiri originalak. Honako hauek adierazi beharko dira: ikastaroaren hasiera eta amaiera data; emandako mailak; emandako eskola ordu kopurua eta ikaslea horietatik zenbatera bertaratu den, kasuan kasuko bertaratze portzentajea ere adieraziz, maila gainditu den ala ez eta matrikularen kostu osoa.

d) Matrikula ordaindu dela egiaztatzen duen agiria, banku entitate batek emana.

e) Administrazio eskudunak egindako ziurtagiria, Foru Ogasunaren zerga ordainketak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatuz.

f) Ikastaroa egin den aldiko lan-bizitza egiaztatzen duen agiria, Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak emana, ikastaroaren erdia baino gehiago langabezia egoteagatik deialdi honen seigarren puntuan jasotzen den bezala diruz lagun daitekeen gastuaren ehuneko 100 jaso nahi duten eskatzaileen kasuan.



Seigarrena.- Eskabideak eta erantsitako agiriak aurkezteko epea.

Eskabideak eta erantsitako agiriak Aiarako Udalean aurkeztu beharko dira urte bakoitzeko urriaren 1etik 31ra bitartean, eta urteko eskaera bakoitzean aurreko urteko urritik (hura barne) eskaera egiten den urteko irailera (hura barne) arte egindako ikastaroa edo ikastaroak bakarrik sartu ahalko dira. Egonaldiak Familia Euskaldunetan programaren kasuan, dirulaguntza eskatzen den urte berean egindako egonaldietarako bakarrik eskatu ahalko da dirulaguntza.

Aurkeztutako dokumentazioan irregulartasun edo gabeziaren bat sumatuko balitz, hamar eguneko epea izango da Udalak errekerimendua egiten duenetik aurrera hura ebazteko. Adierazitako epe hori igarota akatsa ebatzi ez bada, artxibatu egingo da eta administrazio baliorik gabe geratuko da.

Zazpigarrena.- Eskabideak aztertu eta ebazpena ematea.

Eskabideak Aiarako Kuadrillako euskara-teknikariak aztertu eta baloratuko ditu. Teknikariak txostena egingo du, eta horren berri emango du Aiarako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Batzorde Informatiboan Egoki irizten bada, Udalak datu eta argibideak bildu ahalko ditu aurkeztutako agirien gainean, azterketa edo balorazioa osatze aldera.

Behin betiko ebazpena egitea Udaleko alkate-batzarburuari dagokio. Erabakiak laguntza emango edo ukatuko du, eta, ukatzen badu, horretarako edukitako arrazoiak azalduko dira. Ebazpena edozein delarik ere, horren aurka egin ahal izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean, urriaren 1ekoan, azaldiren diren kasuetan eta moduan.


Zortzigarrena.- Dirulaguntzen muga.

Dirulaguntzen zenbateko osoak, xede bererako beste entitate publiko edo pribatu batzuetatik eskuratutakoak barne, ezingo du onuradunak egindako ikastaroaren kostua gainditu inolaz ere. Aiarako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Batzorde Informatiboak dirulaguntza berraztertu ahalko du beste entitate batzuen laguntza ebazpenak eman eta gero. Finantziazioa neurritz gainekoa izatea galaraziko da.

Bederatzigarrena.- Kontrola.

Dirulaguntza ematen duen organoak egoki iritzitako administrazio kontrolak eta ikuskapenak egin ahal izango ditu, zertarako eta aurkeztutako dokumentazioan jasotako datuak benetakoak diren eta laguntza jasotzeko betekizunak gauzatzen diren ala ez egiaztatzeko. Onuradunak ikuskapen horretan laguntzeko betebeharra izango du, eskatzen zaizkion datuak emanaz.

Hamargarrena.- Dirulaguntza galtzea.



Laguntzen onuradun direnek beherago adieraziko diren baldintzetatik bat edo beste urratzen badute, espedienteari ekin egingo zaio jasotako kopuruak itzul daitezzen. Kopuru horiekin batera, dirulaguntza ordaindu zen unetik sortutako berandutza korrituak ere ordaindu beharko dira Dirulaguntzaren galera espedientea irekitzea ekarriko duten arrazoiak honako hauek izango dira:

a) Aurkeztutako eskaera edo dokumentazioan adierazitako datuak faltsutzea.

b) Laguntzaren zenbatekoa, bakarka edo beste laguntza publiko edo pribatu batzuekin batera, onuradunak garatu beharreko diruz lagundutako jardueraren kostu osoa gainditzea.

c) Aiarako Udalari beste dirulaguntza publiko edo pribatu batzuk eskuratu dituela ez jakinaraztea, Aiarako Udalak kasuan kasuko likidazioa onetsita badu ere.

d) Eta, oro har, ordenantza honetan ezarritako betebeharretatik edozein urratzea.

Hamaikagarrena.- Arau hausteak eta zigorrak.

Oinarri hauetan ezarritako betekizunetatik edozein urratzeak Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren V. Tituluan adierazitako arau hausteen erregimenean eta haren administrazio zehapenean sartzeari ekarriko du, emandako laguntza galtzarekin batera.

Hamabigarrena.- Garapena, interpretazioa eta hedapena.


Aiarako Udaleko alkatetzak kasuan kasuko ebazpenak egingo ditu, ordenantza hau garatze aldera.

Ordenantza honetan ager daitekeen edozein interpretazio zalantza alkatetzak ebatziko du, Aiarako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Batzorde Informatiboaren irizpenari jarraikiz.

Ordenantza hau indarrean jarriko da testua, oso-osorik, ALHAOn argitaratu eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legeko 65.2 artikuluan ezarritako hamabost eguneko epea igarota. Guztiek jakin dezaten argitaratzen da”.

BIGARRENA. Udal ordenantza hau jendaurrean edukitzea hogeita hamar eguneko epean, iragarkia Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean (ALHAO) eta Udaletxeko iragarki oholean argitaratuta, erreklamazioak edo iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Erreklamazioak edo iradokizunak Udalbatzak ebatziko ditu.

HIRUGARRENA. Jendaurreko epean inork erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, ordura arte behin-behinekoa zen erabakia behin betikoz onartutzat joko da.



Elektronikoki sinatutako agiria.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta aho batez erabaki du transkribatutako erabaki-proposamena onestea, idatzita dagoen moduan.

6.- Gobernu taldearen proposamena obra txikiak exekutatzeko 2022 Programaren babesean dirulaguntza eskatzeko.- Jarraian, obra txikiak exekutatzeko 2022 Programaren babesean Arabako Foru Aldundiari dirulaguntzaren eskaerari dagokion erabaki-proposamenaren berri ematen zaio Udalbatzari.

“ERABAKI-PROPOSAMENA

HAU IKUSI DA: 2021eko maiatzaren 31ko 59. Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuta agertzen da 313/2021 erabakia, maiatzaren 25eko Foru Kontseilu-Gobernuarena, obra txikien exekuziorako 2022 Programan Arabako Lurralde Historikoko tokiko erakundeentzako laguntza-ildoak onesten dituen.

HAU IKUSI DA: erabaki horretako 3. atalean adierazten da 2021eko uztailaren 8ko 23 ordu 59 minutuetan amaitzen dela eskaerak aurkezteko epea.

HAU AINTZAT HARTU DA: Udala Zuhatzan dagoen ekipamendu partzelan (Aiarako 592 partzelan 2. pabiloi industrialean,) hasiko da, futbol zelaiaren ondoan dagoen pistan obrak egiten. Oinarrian asfaltozko-aglomeratua du eta handitu egin da. Horregatik, beharrezkoa da handituagatik altxatuta dauden gune nabariak konpontzea, trinkotutako material pikortsua jartzea eta ondoren aglomeratua, bai esku hartuko den tokietan, zein pistaren gainerako zatian ere.

HAU AINTZAT HARTU DA: Udalak ez du besteren finantzaziorik obra honetarako, eta, beraz, udal-funtsekin soilik egingo da.


EAJ-PNV udal-taldeak proposatzen du Arabako Foru Aldundiaren 2022ko obra txikien programaren deialdi honetara aurkeztea, obra horietarako dirulaguntza eskatzeko.

Arespalditzan.-

ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO AGIRIA.

Gai honen aldeko txostena egin zen 2021eko ekainaren 8ko Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak, eta Ingurumen Informazio Batzordearen bilkuran.



Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta aho batez erabaki du transkribatutako erabaki-proposamena onestea, idatzita dagoen moduan.

7.- EH-Bildu udal-taldeak energia berriztagarrien hedapenari buruz aurkeztutako mozioa.-

Jarraian, Udalbatzari jakinarazten zaio EH-BILDU udal-taldeak energia berriztagarrien hedapenari buruzko mozioa aurkeztu duela, honako hau dio:

“ENERGIA BERRIZTAGARRIEN HEDAPENARI BURUZKO MOZIOA

Gaur egun, Larrialdi Klimatika daukagun mehatxurik handienetako bat da. Beraz, erantzun azkarra eta klima eta energia politiken eraldaketa eraginkorra eskatzen duen erronka baten aurrean gaude. Erronka honek lan eta ahalegin partekatua eta Euskal Herri neutro batera iristeko ibilbide-orri bat eskatzen du. Horrek guztiak, jakina, gizarte gisa interpelatzen gaitu, eta gure ohituretan zenbait aldaketa eskatzen dizkigu.

Politika publiko guztiak bizi dugun egoerari erantzun behar diote. Erantzun adostua eman behar dugu. Aldez aurretik zehaztutako eta adostutako lurralde estrategia bati erantzuten ez dioten proiektuak garatzea saihestu behar dugu. Esan ere, Araban gure lurraldeak behar duen strategiara egokitzen ez diren energia berriztagarrien proiektuak ugaritzen ari dira azken hilabetetan.

Testuinguru horretan, energia berriztagarriekin eta horien ezarpenarekin lotutako bi eztabaida handiren atarian gaude: Araba Klima 2050 plana Araban, eta, are garrantzitsuagoa, EAEko Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala (LPS). Beraz, berriztagarrien mapa definitzeko eta adostasunetik abiatuta egiteko tresna gisa balioko duen dokumentuaren eztabaida eta definizioaren aurrean gaude, ingurumenaren babesa eta herritarren interes orokorrak ahaztu gabe.


Horregatik guztiagatik, Aiarakoko Udalak:

1. Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, larrialdi klimatikoaren testuinguruan, energia berriztagarrien hedapena modu antolatu eta planifikatuan egingo dela bermatzea, herritarren interesak errespetatuz eta lurraldeko ingurumen balioen zaintzarekin bat etorriz.

2. Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialaren (LPS) onartze prozesua ahalik eta azkarren bideratzea, izapidetze prozesuan ahalik eta kontsentsu politiko, sozial eta instituzional handiena bilatuz.

3. Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio energia berriztagarrien inguruko plangintza egiterako orduan, lehenetsi ditzala berriztagarrien hedapen deszentralizatua eta biziki antropizatuak dauden kokalekuak.

4. Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio LPSa izapidetu bitartean ez dezala aurrera egin ingurumenean eragina izan dezaketen partaidetza publikoko energia berriztagarriko proiektuetan.



Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) esan du zentzu horretan EAJ-PNVk aurkeztutako mozioa osatuago dagoela eta horixe onestea eskatuko dutela.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi du Batzordean bi mozioetan abstenitu zela; izan ere, espero zuen adostasuna lortzea, baina horrela ez dela izan ikusita, EH-BILDUren alde emango du botoa.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) adierazi du bere ustez bi mozioak ezberdinak direla, beraiek eredu deszentralizatuak proposatzen dituztelako, eta eskatu du helburuak zehatz definitu arte martxan dauden proiektu handi guztiak gelditu daitezela.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) adierazi du haiek ez dutela proiektu handiei buruz hitz egiten, baizik eta Euskal Herriaren esparruan garatzen diren azpiegiturek ingurumen-legeriarekin lerrotatuta egon behar dutela. Gaineratu du lurralde-plan sektorial bat egiteko eskatzen duela eta energia berdearen beste iturri batzuk baloratzea, esaterako hidrogenoa.

Udalbatza jakinaren ganean geratu da, eta erabaki du (EAJ-PNV udal-taldeko ordezkarien kontrako botoarekin eta EH BILDU eta AIARA BATUZ udal-taldeko ordezkarien aldeko botoekin) EH-BILDU udal-taldearen energia berriztagarrien hedapenari buruzko mozioa baztertzea.

8.-EAJ-PNVren ordezkatzeko zuzenketa EH Bilduk energia berriztagarrien hedapenari buruz aurkeztutako mozioari.- Jarraian Udalbatzari jakinarazten zio EAJ-PNV udal-taldea energia berriztagarrien hedapenari buruzko ordezkatzeko zuzenketa aurkeztu duela EH Bilduk aurkeztutako mozioari, honako hau dio:


“Energia berriztagarrien hedapenari buruzko ordezkatzeko zuzenketa EH Bilduk aurkeztutako mozioari.

Gentza Alamillo Udaetak, EAJk Aiarako Udalean duen taldeko bozeramaile denak, indarrean dagoen araudiaren argitan, EH Bilduk energia berriztagarrien hedapenari buruz egindako mozioari honako ORDEZKATZE ZUZENKETA hau aurkeztu dio.

ZIOEN AZALPENA

Duela gutxi onartu den Klima-aldaketari buruzko legeak zenbait helburu ezartzen ditu hainbat epealditan, egungo energia-eredua eta atmosferako karbono-isuriak nabarmen aldatuko dituztenak. 2030ean amaitzen den lehen helburu horretan, CO2 isurketak %23 murriztu behar ditugu, energia berriztagarriak % 42ra arte areagotu behar ditugu, eta energia elektrikoaren %70 baino gehiago iturri berriztagarrietatik etortzea lortu behar dugu.

Une honetan, abian da Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialaren aldaketa, arlo horrekin lotutako alderdi guztiak ordenatuko dituena. Baina aipatutako helburuak betetzeko, egungo planean aurreikusitako instalazioak abian jartzea bultzatu behar da, energia



berriztagarrien ekoizpen propioaren azken postuetatik atera eta Euskadi legeak ezartzen dituen helburuetara iristea lor dezan.

Horregatik guztiagatik, Aiarako Udaleko EAJ PNVren udal-taldeak ORDEZTEKO ZUZENKETA hau aurkezten dio energia berriztagarrien hedapenari buruz EH Bildu taldeak aurkeztutako moziolari.

ZUZENKETA

1.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio lerrokatu ditzala bere helburuak Europako Itun Berdearen helburuekin, garapen bidezko eta iraunkorreko eredu batean aurrera egiteko Basque Green Deal-en bidez.

2.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Energia Berriztagarrien Lurraldearen Plangintza Sektoriala ahalik eta adostasun politiko eta sozial handienarekin egin dadila.

3.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Euskadin garatzen diren energia berriztagarrien proiektu guztiek indarreko lege-esparruan jasotako ingurumen-neurriak errespetatu eta bete ditzatela, bai Klimari buruzko Europako Legea eta Espainiako Gobernuaren Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Legea egokitzeko prozesu bat ireki dezala ere, onartu ondoren beharrezkoa izanez gero.

4.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio klima-aldaketari eta energia-trantsizioari aurre egiteko Europako, Estatuko edo EAeko funtsak energia berriztagarriak eta eraginkortasun energetikoa sustatzeko proiektuetara bidera daitezela, Euskadiko Energia Estrategiaren irizpideei jarraituz.

5.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio hidrogenoarekin zerikusia duten proiektuetarako Europako, Estatuko edo EAeko funtsek balio dezatela CO2 isurketarik gabeko energia berriztagarrietatik datorren hidrogeno berdea lortzeko.

Arrespalditzan, 2021/06/01.

Sin. / Fdo.:

EAJ-PNVren udal bozeramailea”.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta erabaki du (EAJ-PNV udal-taldeko ordezkarien aldeko botoarekin eta EH BILDU eta AIARA BATUZ udal-taldeetako ordezkarien kontrako botoarekin) EAJ-PNV udal-taldeak EH Bilduk energia berriztagarrien hedapenari buruz aurkeztutako moziolari aurkeztutako ordezkatzeko zuzenketa onestea.

9.-Udal-igerilekuen eta instalazioen mantentze- eta arreta-zerbitzuaren kontratuaren luzapena eta aldaketaren erabaki-proposamena.- Jarraian, Udalbatzari jakinarazten zaio azaroaren 28ko Toki erakundearen antolaketa, jarduera eta araubide juridikoaren araudiari buruzko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikuluan jasotakoaren arabera, alkate edo presidentek premiazko arrazoiengatik gai-zerrendan sar ditzake aurretiaz dagokion informazio-batzordeari



jakinarazi gabeko gaiak, baina kasu horretan ezin izango da gai horien gaineko erabakirik onetsi oso bilkurak gai horiek gai-zerrendan sartzea berresten ez badu.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta aho batez erabaki du gai hori bilkura honetako gai-zerrendan sartzea berrestea.

Jarraian, Udalbatzari jakinarazten zaio Aiarako udalerrian udaldian zehar udal-igerilekuen eta instalazioen mantentze- eta arreta-zerbitzuaren kontratuari dagokion erabaki-proposamena.

“ERABAKI-PROPOSAMENA

HAU IKUSI DA: Aiarako udalerrian udaldian zehar udal-igerilekuen eta instalazioen mantentze- eta arreta-zerbitzuaren kontratua, udal honek **TALDESPORT SERVICIOS DEPORTIVOS SL** enpresarekin sinatu zuena, eta 2016ko maiatzaren 20ko Alkatetza Dekretuaren bidez esleitu ziztaiona.

HAU IKUSI DA: 2016ko maiatzaren 20ko 175/16 Alkatetza Dekretu horren bigarren ebazpenean honako hau jasotzen da “...Kontratuaren iraupena (4) LAU URTEKOA izango da, kontratua sinatzen denetik hasita, eta alderdi biak ados badaude gehienez bi urtez luzatu ahal izango da (urteko bi luzapen)...”.

HAU IKUSI DA: azaroaren 14ko Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen testu bategina onartzen duen (indargabetutako legegintza, baina kontratu honetan aplikatu daiteke azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 2 Lehenengo Xedapen Iragankorrean jasotakoaren arabera) 3/2011 Legegintzako Errege-Dekretuaren 23.2 artikulua arabera, luzapena kontratazio-erakundeak erabakiko du eta derrigorrezkoa izango da enpresariarentzat, kontratuak bereziki kontrakoa aurreikusten ez badu.

HAU IKUSI DA: Lehendakariaren maiatzaren 31ko 26/2021 DEKRETUA, zeinak Lehendakariaren maiatzaren 7ko 23/2021 Dekretua aldatzen duen, SARS-CoV-2ak sortutako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriei buruzkoa. Neurri horiek betetzeko kontratu honek aldaketa-espeditatea izapidetzea eskatzen du.

Horregatik guztiagatik, eta azaroaren 14ko 3/2011 Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen testu bategina onartzen duen (indargabetutako legegintza, baina kontratu honetan aplikatu daiteke azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 2 Lehenengo Xedapen Iragankorrean jasotakoaren arabera) 3/2011 Legegintzako Errege-Dekretuaren arabera, Udalbatzari honako erabaki hau hartzea proposatzen zaio:

LEHENENGOA.- Aiarako udalerrian 2021eko udaldian zehar udal-igerilekuen eta instalazioen mantentze- eta arreta-zerbitzuaren kontratuaren azkenengo luzapena erabakitzea, zeina udal honek **TALDESPORT SERVICIOS DEPORTIVOS SL** enpresarekin sinatu zuen.

BIGARRENA.- Alkate jauna ahalduzkoa kontratuaren beharrezko aldaketak izapidetzeko eta onesteko, COVID-19aren pandemiak sortutako egungo osasun-egoerari erantzuteko.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau jakinaraztea zerbitzuaren esleipenduna den **TALDESPORT SERVICIOS DEPORTIVOS, S.L** enpresari.

ALKATE-PRESIDENTEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.



ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO AGIRIA

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak adierazi du, araudiak eskatzen duen COVIDaren aurkako kontingentzia-planari aurre egiteko, zerbitzuan beste pertsona bat gehitu behar dela eta dagokion figura juridikoa izapidetu behar dela beharrezkoak diren baliabide horien kudeaketa eta ordainketarako.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta aho batez erabaki du transkribatutako erabaki-proposamena onestea, idatzita dagoen moduan.

10.- Alkatetza Dekretuen kontu ematea.- Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaizkio 2021/257 eta 2021/341 bitarteko Alkatetza Dekretuak, aipatutako bi horiek barne. Horien guztien edukia, laburki, honako hau da:

“ALKATETZA DEKRETUEN ZERRENDA.-

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/257.- 2/2021 zenbakiko kreditu gehigarria alkateak onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/258.- J.I.A.G.- Lantenoko Retesen etxebizitza eraikitzeagatik hirigintza-birgaitzearen espedientea hasteko orri-bazterreko inskripzioa jabetza-erregistroari eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/259.- Larrabe SC- Agiñagako etxebizitzetako fatxadak zarpiatzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/260.- A.E.A.- Luiaondoko etxebizitza batean igerilekua jartzeko obra-hondakinak egoki kudeatzeko fidantza eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/261.- M.F.G.- Luiaondoko partzela batean igerilekua jartzeko obra-hondakinak egoki kudeatzeko fidantza eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/262.- Y.G.O.- Maroñon txabolaren estalkia birgaitzeko obrako hondakinak kudeatzeko fidantza itzultzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/263.- ZANDESA SA- Eusko Jaurlaritzari lurzoru-kalitatearen espedientearen izapidetze-egoerari buruzko txostena eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/264.- G.S.Q.- Sojon nekazaritza eta abeltzaintzako jardueraren aurretiazko komunikazioa onesteko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/265.- J.M.R.D.- Salmantonen etxebizitzaren estalkia birgaitzeko obrako hondakinak kudeatzeko fidantza eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/266.- V.R.M.- Lantenoko finka baten horma sendotzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/267.- I.P.U.- Lantenoko etxebizitzan tximinia kentzeko eta horma estaltzeko obrarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/268.- G.S.Q.- Sojon pabiloiaren lehen erabilerako lizentzia ematea eta obra hondakinak kudeatzeko fidantza itzultzeko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/269.- Embalajes Urkijo SL- Sailkatutako jardueraren lizentzia izapidetzeko dokumentazioa eskatzea.



ALKATETZA DEKRETUA - 2021/270.- M.I.A.Z.- Sailkatutako jardueraren lizentzia izapidetzeko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/271.- Valle de Lanteno Arte Eskola.- 2021ean emandako dirulaguntzaren % 80 ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/272.- Cysunor SL- Sailkatutako jardueraren lizentzia izapidetzeko dokumentazio gehigarria eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/273.- J.O.A.- Luiaondoko partzelan igerilekua jartzeko obrarako hondakinak kudeatzeko fidantza eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/274.- I.D.U.- Zuhatzako etxebizitza bateko estalkiaren teila ordezkatzeko udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/275.- EUSKARAZ KOOP E- Aiara-Ayala Berbalagun-Gurasolagun programaren dinamizazio-zerbitzuaren kontratua esleitzeko dekretua.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/276.- 3/2021 zenbakiko kreditu gehigarriaren espedientea onestea 6.168,62 euroko zenbatekoan.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/277.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarra.- Beotegiko bolatokia eta inguruak birgaitzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/278.- U.M.A.- Luiaondoko etxebizitza baten eraikuntza obrako hondakinak kudeatzeko fidantza itzultzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/279.- J.E.C.G.- Luiaondon jardueraren aurretiazko jakinarazpena onesteko dokumentazio gehigarria eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/280.- M.B.S.Y.- Lantenon etxebizitza birgaitzeko Udalaren obra-lizentzia emateko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/281.- Apartamentos turísticos Llanteno SC- Lehen erabilerako lizentzia emateko eta hondakinak kudeatzeko fidantza itzultzeko dokumentazio gehigarria eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/282.- Apartamentos turísticos Llanteno SC.- Lantenon apartamentu turistikoaren jardueraren aurretiazko jakinarazpena onesteko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/283.- Eguneko Arreta Landa Zentroak kudeatzeko 2021eko otsaila, martxo eta apirilko gastuak onestea eta ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/284.- Apartamentos turísticos Llanteno SC- Lehen erabilerako lizentzia emateko, hirigintza eta hondakinak kudeatzeko fidantza itzultzeko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/285.- Eusko Jaurlaritzari 1741-1962 bilkuretako akta-liburuak digitalizatzeko dirulaguntza eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/286.- Elkarkidetza Pentsioak.- Likidazio-faktura onestea, 2021eko maiatza.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/287.- Arespalditzako Zubito auzoko 7 zenbakiko etxejabeen elkarteak.- Arespalditzako etxebizitzetarako sarrera ixteko Udalaren obra-lizentzia izapidetzeko dokumentazio gehigarria eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/288.- T.U.U.- Olabazarreko partzelan abeltzaintzako itxitura konpontzeko Udalaren obra-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatzea.



ALKATETZA DEKRETUA - 2021/289.- JM.Z.L.- Murgako etxebizitza baten fatxadaren beheko parteko azpi-eskuaira birgaitzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/290.-JM.J.A.- Olabezarreko etxebizitzan komuna eraberritzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/291.- I.F.R.- Lehen erabilerako lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatzea eta I eta II fasean dagoen zaldi-hazkuntzarako nabearen eraikuntzako hondakinak kudeatzeko fidantza itzultzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/292.- I.F.R.- I. eta II. fasean dagoen zaldi-hazkuntzarako nabearen jardueraren aurretiazko jakinarazpena onesteko dokumentazio gehigarria eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/293.- GALEMYS SL- Eskola Agenda 2030ren prozesua prestatu eta jarraitzeko aholkularitza teknikoaren kontratua esleitzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/294.- Luiaondoko partzela batean igerilekua jartzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/295.- A.E.F.- Luiaondoko partzela batean igerilekua jartzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/296.- JM.R.D.- Salmantoneko etxebizitza baten estalkia birgaitzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/297.- J.O.A.- Luiaondoko partzela batean igerilekua jartzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/298.-Lantenoko Administrazio Batzarra.- 2020an emandako dirulaguntzaren ordainketa onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/299.- "Aiarako Jolas Txokoak" udalekuen kudeaketa kontratua esleitzeko espedientea onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/300.- Arespalditzako Zubito auzoko 7 zenbakiko etxejabeen-elkartea.- Etxebizitzetarako sarrera ixteko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/301.- J.A.F.C.- Izoriako partzela baten itxitura konpontzeko eskatutako obra-lizentziaren ukapena onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/302.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarra-Beotegin Aretxabalako bideko hormigoiketarako obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/303.- A.F.Y.- Udal-artxiboko espediente eta dokumentaziorako kontsulta.

ALKATETZA DEKRETUA - Langileen eta alkatearen hilabeteko 2021/304 2021eko maiatzeko nominaren txostena onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/305.- FJ.J.A. – Luiaondoko igerilekua eraikitzeko obraren hondakinak kudeatzeko fidantza itzultzeko dokumentazio gehigarria eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/306.- Gizarte Segurantzako DN.- 2021eko apirileko kuota ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/307.- Aiarako Kuadrilla.- 2021eko bigarren hiruhilekoko HHSak kudeatzeko ekarpen ekonomikoa.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/308.- Proykta Contract SCP.- F2104 faktura onestea, 11.495 euroko zenbatekoa.



ALKATETZA DEKRETUA - 2021/309.- MT.S.G.- Lantenoko etxebizitza bateko terraza konpontzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/310.- A.U.U.- Aparkatzeko txartela berritzea iraungi egin delako.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/311.-JA.I.V.- Zuhatzan abeltzaintzako ustiategiaren jardueraren aurretiazko jakinarazpena onesteko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/312.- M.DS.A.- Menagaraiko 882 partzelan obregatik hirigintza-ordena birgaitzeko espediente hastera.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/313.- JA.I.V.- Zuhatzan behi ganadurako gorta eraikitzeke obra-lizentzia emateko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/314.- Luyando System SL- Luiaondon jardueraren aurretiazko jakinarazpena onesteko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/315.- Talleres Banoa SL- Jarduera lizentzia emateko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/316.- Aluventanas Omar S Koop.- Murgako industrialdean metal-arozgintza jardueraren aurretiazko jakinarazpena onesteko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/317.- Fundación Benéfica Alday.- Arespalditzan pertsona nagusientzako egoitzaren lehen erabilerako lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/318.- Alday Fundazioa.- Arespalditzan pertsona nagusientzako egoitzaren jardueraren aurretiazko jakinarazpena onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/319.- M.V.E.- Murgan ganadu-pabilioiaren jardueraren aurretiazko jakinarazpena onesteko dokumentazio gehigarria eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/320.- M.V.E.- Murgan nekazaritzako eta abeltzaintzako nabearen lehen erabilerako lizentzia ematea eta obrako hondakinak kudeatzeko fidantza itzultzeko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/321.- A.S.Y.- Aparkatzeko txartela aldatzea hondatu egin delako.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/322.- ALDAMOLI SL- Murgako baserria birgaitzeko Udalaren obra-lizentzia emateko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/323.- E.A.M.- Murgako baserria birgaitzeko Udalaren obra-lizentzia emateko dokumentazioa eskatzea

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/324.-G.O.T.- Etxegoien etxebizitza eraikitzeke obrei hasiera emateko baimena ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/325.- F/2021/5 zerrendako kontabilitate-fakturak onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/326.- L eta B. T.M.- Salmantoneko Etxabe auzoko 12 zenbakiko baserrian estalkiaren birgaitze-obrako hondakinak kudeatzeko fidantza itzultzea ukatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/327.- L eta B T.M.- Salmantoneko Etxabe auzoko 11 zenbakiko baserrian estalkiaren birgaitze-obrako hondakinak kudeatzeko fidantza itzultzea ukatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/328.- A.I.G.- Aparkatzeko txartelaren berritzea ukatzea desgaitasun ebazpenaren balio-denbora iraungi egin delako.



ALKATETZA DEKRETUA - 2021/329.- Alderdi politikoei ekarpen ekonomikoa, 2021eko maiatza.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/330.- Udalbatzako kideen ekarpen ekonomikoa, 2021eko maiatza.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/331.- Gasteizko Elizbarrutia.- Lantenon Santiago elizako estalkia konpontzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/332.- Asasam. 2021ean emandako dirulaguntzaren % 80 ordaintzea onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/333.- Etxaurren ikastolako IGE.- Talde psikopedagogikoari eta bi urtekoen gelako laguntzaileari nominak ordaintzea, 2021eko maiatza.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/334.- S.B.M. Ibilgailuaren behin betiko baja dela-eta 2021eko TMIZren parte proportzionala itzultzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/335.- MC.R.P.- Euskara ikastaroaren matrikula ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/336.- L.R.R.- Aparkatzeko txartela.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/337.- I.G.A.- Ibilgailuaren behin betiko baja dela-eta TMIZren parte proportzionala itzultzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/338.-JA.G.A.- Lantenoko Retesen Udalaren obra-lizentzia gabe nekazaritza-pabiloia eraikitzeagatik hirigintzako leheneratze-espeditzea hastea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/339.- A.Z.L.- Murgan txabola birgaitzeko obra-lizentzia ukatzen duen Alkatetza Dekretuaren aurkako berraztertze-errekurtsoa ezestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/340.- J.M.L.- Luiaondon etxebizitza bateko sarreraren itxiera berritzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/341.- I.I.A.- Murgan antolamenduz kanpoko eraikina deklaratzeko.

Koldo Mendioroz Goldaraz zinegotzi jaunak (EH-BILDU) eskatu du 282 eta 284 alkatetza dekretuak argitzea, Lantenoko apartamentu turistikoei buruzkoak.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du edozein etxebizitzatako obra bukatzen denean, obra bukaerako dokumentua eskatzen dela lehen erabilerako lizentzia izapidetzeko eta falta den dokumentua eskatu dela fidantza itzuli ahal izateko. Gaineratu du, bestalde, jarduera lizentzia ere izapidetzen ari direla.

Koldo Mendioroz Goldaraz zinegotzi jaunak (EH-BILDU) adierazi du horrek harritzen duela zerbitzu batzuegatik faktura bat ordaindu zaielako, oraindik jardueraren lizentzia izapidetzen ari direnean.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du premiazko egoera bat gertatu zela, hots, Lantenoko etxebizitza baten sutea, eta familia horri ostatu-zerbitzuagatik faktura bat ordaindu zitzaion familia horri konponbide azkarra emateko eta haien egoera gehiago ez larritzeko, gizarte-larrialdiko pisua okupatu ahal izan zuten arte, orain bertan daude.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

11.- Eskaerak eta galderak.



Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) honako esku-hartze hauek egin ditu:

- Unai Campo Arenaza zinegotzi jaunari mendiko uraren kontuagatik galdetu dio. Unai Campo Arenaza zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) esan du ur-ponpaketa ez dabilela ondo eta enpresarentzat intzidentziaren konponbidea aurkitzea zaila izaten ari dela. Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) gaineratu du kudeatzen ari den enpresari konponbidea emateko premia helarazten ari direla.
- Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) galdetu du ea zerbait dakien Laudioko txertaketa-gunearen itxiera posibleari buruz. Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) esan du modu ofizialean ez dela horren inguruko jakinarazpenik jaso.
- Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) aprobetxatu du idazkari eta kontu-Hartzaileari orain arte egindako lanagatik eskerrak emateko.
- EAJ-PNV eta EH-BILDUren mozioei dagokienez, esan du mozioak hain orokorrak ez izatea gustatuko litzaiokela, eta Aiaran lortutako erabakiekin lotuago egotea.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) erantzun du aurkeztu diren mozioetan, bi alderdien proiektuak oso ezberdinak direla eta akordio batera heltzea zaila dela, baina posible bada egingo dela.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) esan du askotan adostasuna lortzen dela.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) honako esku-hartze hauek egin ditu:

- Eskatu du Vital Fundazioaren eta Euskara Planaren laguntzari buruzko dokumentazioa bidaltzeko, baita Aiarako emigrazioari buruzko datuak ere.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du eskatutako dokumentazioa igorriko zaiela. Adierazi du herriz herriko emigrazioari buruzko datuak banatzea zaila izan dela; Vital Fundazioaren laguntza proiektuari buruz esan du gaia landu zen informazio-batzordeko dokumentazioarekin igorri zitzaiela, baina berriro bidaliko dutela, baita Euskara Plana ere.

- Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) adierazi du bilkura baino egun bat lehenago mozio bat aurkeztu zutela, torturen biktimen egunari buruzkoa (ekainaren 26a), eta nahiz eta ulertzen duen aztertzeke denborarik egon ez delako ezin izan dela sartu, beste batzuetan gaiak premiaz sartzen dira. Adierazi du mozio horretan torturak egin zituzten pertsonen inpunitatea eta erakundeek biktimak albo batera utzi izana salatzen dela, eta eskatzen dute ekainaren 26an torturengatik hildako biktimen omenezko bandera jartzea.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du mozioa bilkura honen aurreko egunean iritsi zela eta ez zela aztertzeke denborarik egon, horregatik ez da gai-zerrendan sartu, baina eskaera eta galderen puntuan sartzea proposatu du. Gaineratu du



biktimen aitortza horren alde daudela eta botere publikoei neurriak hartzea eskatzen die giza eskubideen urraketarik ez dadin zigorrik gabe gelditu, edozein dela ere haien jatorria.

- Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) galdetu du ea Zuatzako plan partzialaren txosten juridikoa iritsi den, zeintzuk diren eman beharreko urratsak eta ea Zuatzako Administrazio-Batzarrari jakinarazi zaion.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du telefonoz esan zion moduan, jaso zutela idazle taldearen txosten juridikoa, eta kasu honetan ezberdina dela taldearen iritzi tekniko eta juridikoa. Hortaz, gaineratu du Gerardori eskatuko zaiola hurrengo Hirigintza Batzordera joateko eta azaldu dezala zein den txosten juridiko hori izanda kontsiderazio tekniko horiek egiteko oinarria, eta behin hori argitu eta landuta, Zuatzako Administrazio-Batzarrari helaraziko diotela.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) galdetu du noizko dagoen aurreikusita Hirigintza Batzordea.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du uztailaren 13rako dagoela aurreikusita eta Gerardorekin planifikatuko dela ea aurrez aurre egin daitekeen edo ez.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) esku hartu du esateko bilkurara ez direla estatutuak ekarri eta horretarako arrazoia zein den jakin nahi du.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du lehenengo Gerardorekin Informazio-Batzordean batzarra egingo dela eta uztailleko hurrengo bilkurara eramango dituztela.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) adierazi du gai hau ahalik eta azkarren argitzea gomendagarria litzatekela, zenbat eta urrats gehiago eman, orduan eta zailagoa izango delako atzera itzultzea.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) argitu du aurreratzen saiatuko direla, baina bi kontu bereizi behar direla: batetik, Udalaren betebeharra arau subsidiario batzuekin eta bere garapenaren jarraipena egiten den plan partzial batekin jarraitzeko eta bestetik, HAPOari dagokion guztia.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) honako esku-hartze hauek egin ditu:

- Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) esku hartu du, lehenik eta behin, idazkari kontu-hartzaileari onena opatzeko.
- Jarraian, esan du, batetik ez duela Aiarako BTTren gastu eta diru-sarrereren zerrenda jaso zen data jaso, eta bestetik, beste behin komunikazio falta aipatu du, Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) dei bat jaso zuelako ea maiatzaren 5ean Urbiderekin izan zuten bileraren berri ote zuen galdetzeko, eta egindako batzordeetan ez zitzairen hori jakinarazi, eta uste du haiek ere Udalaren parte direla eta jakinaren gainean egoteko eskubidea daukatela. Gaineratu du bilera horretako akta jasotzea gustatuko litzaiokela.



Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du bilera horretako akta bidaliko dutela eta komentatu du bera Udaleko ordezkari moduan joan zela bilerara eta bertan Urbideko udalerriko ordezkariak aukeratu zirela.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) adierazi du udal honetako parte direnez, informatu beharko lituzketela. Gaineratu du ea Udalbatzako kide guztiak bileraren berri zuten, informatu ez izanak arduratzen duela, eta beraiek ez jakiteak ere arduratu egiten duela.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) eskatu du taldearen funtzionamendua errespetatzeko, ez dakielako nolakoa den.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) esan du bere bilerako jarrera Lantenoko Administrazio-Batzarraren ordezkari gisa izan zela, bilera deitu zen arrazoia hori izan zen, baina Udaleko talde politiko baten ordezkari gisa, ez duela informaziorik jakin.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) bukatzeko esan du akta duenean bidaliko dela eta etorkizunera begira posible dela denok hobetzea.

Koldo Mendioroz zinegotzi jaunak (EH-BILDU) honako esku-hartze hauek egin ditu:

- Koldo Mendioroz zinegotzi jaunak (EH-BILDU) galdetu du ea Murgako industriagunean hil zen pertsona baten omenezko monolitoari buruzko gaian zerbait erabaki den, edo horrelakorik ezean, ea helburu horretarako beste ekintzaren bat abian jarri den. Galdetu du Garabillako isuriengatik, oraindik ez baitira kendu; eta galdetu du ea datorren batzordean aurrera egingo den animalien ordenantzaren gainean.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Alkatetza Dekretu baten bidez, Eusko Jaurlaritzari, erakunde eskudunari, eskatu zaiola Garabillako isuriak direla-eta Zandesari hartu beharreko neurriak jakinarazteko.

Iñigo Pinedo Vadillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du duela astebete Hirigintza-Batzordean udal-talde guztietako ordezkariari eskaini zitzaizela udal-teknikaria ager zitekeela zalantzaren bat sortzen zien edozein gai argitzeko, eta inork ez zuen eskatu, eta orain galdetzen dute.

Marian Mendiguren Merndibil zinegotzi andreak (EH-BILDU) adierazi du bere taldeak egoki irizten duen tokian aipatzen dituela gaiak, EAJ-PNVk egiten duen bezalaxe.

Animalien ordenantzaren inguruan, Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du Batzordean komentatu zela hasierako proposamena ezin zela Aiaran aplikatu, bete ahal izateko zailtasun handiak zituelako. Gaineratu du bigarren ekarpen bat egin zela eta hori lantzen ari direla.

Azkenik, monolitoari dagokionez, adierazi du dagoeneko jakinarazi zela gaia iraileko Batzorde batera eramango zela, eta ikusiko zela nola omendu; halaber, adierazi du ikusaraz zitezkeela Aiaran lan istripuan hildako pertsona guztiak, ez soilik Zorroazako langilea.



Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) adierazi du Garabillako isuria 2005ekoa dela, hamasei urte igaro direla eta neurriak hartzea ezinbestekoa dela, horregatik gogorarazi dute.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du urte hauetan guztietan kolore guztietako gobernuak egon direla eta EAJ-PNV gobernuan dagoenetik espedientea izapidetzen hasi zirela, Eusko Jaurlaritzari esku har dezan eskatzeko, haiek direlako eskumena dutenak.

Jorrazeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hogeia eta hogeita sei minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hogeita bateko ekainaren hamazazpian.

O. E.
ALKATE-UDALBURUA

IDAZKARIA

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Sin.: M^a Del Carmen Rojo Pitillas.